eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

DOKTORETZA TESIA – PhD THESIS

PNEUMATIKOETAKO KAUTXU BIRZIKLATUZ FABRIKATURIKO MATERIAL BATEN KARAKTERIZAZIOA KOLPEEN AURREAN

CHARACTERIZATION OF RECYCLED RUBBER COMING FROM USED TIRES UNDER IMPACT LOADINGS

Egilea / Author:

Irantzu Uriarte Gallastegi

Zuzendariak / Supervisors:

Iker Garitaonandia Areitio Dr.

Teresa Guraya Díez Dr.

Bilbao, 2017 Maiatza / May

Krisialdietan, irudimena soilik da ezagutza baino garrantzitsuagoa

Albert Einstein (1879-1955)

ESKER ONAK

Ezagutzen nauen orok daki niretzat zeinen zailak diren honako hitz hauek. Izan ere, horrenbeste dut eskertzeko, horrenbeste jenderi, beldurra ematen didala inor ahazteagatik minduta senti daitekeenaren pentsatze hutsak.

Nire eskerrak txikitatik unibertsitaterainoko bidean nire ikastola maitean jakin-mina, zirrara berezi hori sorrarazi zidaten guztiei. Baita unibertsitatean izan nituen irakasle itzel horiei ere. Mikel, Andoni, Javi eta Josu, zueri bere eskerrik asko bihotzez. Izandako lan desberdinetako kide eta gaur egungo lagun berezi horiei. Ibilbide horrek egin nau gaur naizen profesionala.

Nire tesi zuzendari biok ezin ahaztu, Iker eta Teresa.

Lanean ditudan kideei esker berezia. Esteban, Ziortza eta Iñakiri, zuokin ikasgaiak partekatzea plazer bat delako eta tesi honetan aritu naizen artean lagundu izan didazuen guztiarengatik, ez lan kontuetan soilik. Sarritan gogorrak egiten diren momentuetan euskarri izan zaretelako, Rober eta Mikelekin batera. Zer esan lan honetan gehien lagundu izan didan pertsona horri buruz, Ekaitz, zure moduko jendez beteta behar luke mundu honek; lagun itzela egin dut bidean, Ciceron. Berarekin batera Gasteizen zaitudan lagun miñ horri, behar zaitudan oro hor egoteagatik, milesker! Ta noski sailean eta unibertsitatean zaituztedan gainontzeko lagunoi ere (Juan, Aloña, Nekane, Amaia, Edorta), jada elkarrekin bizi izandako hainbeste gauzengatik. Maider, Pilar, Itzi, Antón,…ikusten?, zerrenda luzeegia; parkatu norbait ez bazaituztet aipatu.

Kuadrillako lagun guztioi, denbora guzti honetan ni jasan izanagatik, nire eskerrik beroenak. Azkenean badirudi *dottore dottore* abestu ahal izango dugula (Venecia-n ote?). Nire beste lagun *Ladies* horiei ere milesker hor egoteagatik! Bidean ezagutu eta horren berezietan bihurtu zaretenoi ere eskerrak, Yolanda, nire *Xelebreak*, Ibai, nire Death Star horren berezi horri.

Ta betiko moduan, ezin falta familia. Familiako guztioi bide honetan lagundu izanagatik. Batetik, aita-ama, Naia, amumi. Bestetik, Bego, Juan, Izas, izeko, osabak. Ta noski, Gari eta nire maitetxu biori, Izaro eta Laida, hor zaudetelako, beti.

Bidean joan zaidan persona garrantzitsuenari.

Amuma, zuretzat.

LABURPENA

Kautxuaren eskaria moteltze handia eta energia disipatzeko gaitasuna beharrezkoa den hainbat ingeniaritza arlotan modu zabalean ematen da. Erabilitako kautxuzko pneumatikoek material polimerikoen hondakin portzentai handi bat suposatzen dute, kontuan izanik automobil-industriak urterik urte pneumatikoen kopuru handiagoa eskatzen duela. Materiala birziklatzeko helburuarekin, motoziklisten babeserako diseinatzen diren babes-sistemen artean, errepideetako hesietan estaldura moduan erabiltzeko aplikazio potentziala eman zaio. Hortaz, tesi honek pneumatikoetako kautxuan oinarritutako materialaren karakterizazioa burutzeko egindako lana aurkezten du.

Hiru nahaste egin dira pneumatikoetako kautxu birziklatuarekin eta dentsitate txikiko polietileno linealarekin (LLDPE) itsasgarri moduan, material bakoitzaren proportzio desberdinekin eta koloratzailelez erabili den TiO_2-ren proportzio konstante batekin nahaste guztietan. Erabilera hau inpaktuen barne dago; hortaz, nahastearen karakterizazio mekanikoak abiadura altuko konpresiozko saiakuntzak barneratzen ditu.

Literaturan ondo ezagutzen den eredu osagarri hiper-biskoelastikoa aukeratu da materiala karakterizatzeko, hain zuzen ere Yang-en eredua. Zati hiperelastikoa minimo karratuen doiketa teknikaren bitartez doitu da. Zati biskoelastikoko parametroei dagokienez, Particle Swarm Optimization (PSO) algoritmoa aukeratu da parametro hauen balioak lortzeko.

Abiadurarik altuenean materialaren kurbek ondulazio bereizgarri batzuek aurkeztu dituzte, normalean “ringing” moduan ezagutzen direnak literatura espezializatuan. Datu esperimental hauek ezin dira jatorrizko eran erabili distortsionatuta daude eta. Hortaz, Analisi Modal Esperimentala (EMA) kontsideratu da makina serbo-hidraulikoaren ezaugarri dinamikoak xehetasunez ikasteko asmoz. Hortik askatasun gradu anitzeko eredu bat eraiki da EMAtik lortutako frekuentzia naturalen, moduen eta moteltze faktoreen bitartez. Modu honetan emaitza finalaren oszilazioak minimizatuta jada erabilgarria da.

Aurretiaz proposaturiko Yang-en eredua Ansys Elementu Einituetako software-an inplementatzeko metodologia aurkeztu da ondoren; analisi esplizituetarako LS Dyna erabiltzen duena. Ekuazio osagarri hau ez dago oraindik software honetan inplementaturik eta ondorioz, materialaren azpirrutina bat garatu da, lehendabizi Matlaben. Lan honetan materialaren azpirrutina inplementatzeko algoritmoa azaltzen da.

AURKIBIDEA

Irudien zerrenda

Taulen zerrenda

LABURDURAK ETA SINBOLOAK

a	non-dimensionalised modelling parameter
A_i	modelling parameters
$\boldsymbol{B}$	left Cauchy-Green deformation tensor
B_{ij}	components of $\boldsymbol{B}$
$\boldsymbol{C}$	right Cauchy-Green deformation tensor
$\dot{\boldsymbol{D}}$	non-dimensionalised strain rate
$\boldsymbol{E}$	Green-Lagrange strain tensor
$\dot{\boldsymbol{E}}$	strain rate tensor
$\boldsymbol{F}$	deformation gradient tensor
$\boldsymbol{I}$	unit tensor
I_i	invariants of $\boldsymbol{B}$
I'_i	invariants of $\boldsymbol{C}$
p	pressure
s	non-dimensionalised time
$\boldsymbol{S}$	non-dimensionalised stress tensor
t	time
W	strain energy potential
$\boldsymbol{x}$	position vector of a material particle at time t
$\boldsymbol{X}$	initial position vector of a material particle
β	integral variable of non-dimensionalised time
ε_{ij}	components of engineering strain
$\dot{\zeta}$	non-dimensionalised stretch rate
θ_i	relaxation time
λ	stretch
$\dot{\lambda}$	stretch rate
σ	Cauchy stress tensor
σ^0_{ij}	components of engineering stress
σ_{ij}	components of σ
τ	integral value of time
Ω	constitutive functional

1. SARRERA

1.1 AURREKARIAK

Kautxuaren eskaria moteltze handia eta energia disipatzeko gaitasuna beharrezkoa den hainbat ingeniaritza arlotan modu zabalean ematen da. Erabilitako kautxuzko pneumatikoek material polimerikoen hondakin portzentai handi bat suposatzen dute, kontuan izanik automobil-industriak urterik urte pneumatikoen kopuru handiagoa eskatzen duela. Kautxu bulkanizatuak hiru dimentsiotako sare-egitura du, modu naturalean degradatzea erraza ez delarik, eta beraz, interes handia dago kautxuaren birziklatzean[1-4]. Interes hau sustatu egin da hondakinen deuseztapenen kudeaketa mundu osoan zehar zabalduz doan joera izanik; produktuen bizitza amaierarako erabilpen alternatiboak ematen saiatzen ari da, ez bakarrik ingurumen-faktoreengatik, baizik eta arrazoi ekonomikoengatik ere.

Kautxuen ingeniaritza-aplikazioak zabalak dira eta bizkor hazten doaz: Eztanda-babeserako armada-ibilgailuetako errodamendu estrukturalak[5,6], edo eraikinak eta zubiak lurrikaretatik babesteko[7], pneumatikoak, ehun biologikoak[8], ibilgailu-esekiak, bibrazio-isolatzaileak[9], junturak, juntura malguak eta kolpeak jasateko motelgailuak. Soberakina den kautxuaren birziklatzea dentsitate txikiko polietileno linealarekin nahastatuz azken aplikazio honentzat soluzio interesgarria da. Inpaktuetan zehar energia xurgatzeko kautxuaren ahalmenak oso propietate erabilgarri bat hornitzen du errepideeetako motoziklistak babesteko hesietan estalduren diseinurako, bi gurpildun ibilgailuen erabiltzaileek[10] koherenteki erabilerrazago eta ziurragoak diren errepideetako hesiak eskatzen dituzte. Bide-azpiegituretarako sistema babesleen artean, hesi metalikoekin eraikitakoak motorziklistentzat bereziki kaltegarriak kontsideratuak daude, beraien kontrako inpaktu batek lesio larriak eragin ditzakeelako.

Aurretiaz aipaturiko eskaerak betetzeko helburuarekin, bi gurpildun ibilgailutarako egokitutako sistema babesle kantitate garrantzitsuak diseinatu dira, orokorrean Motoziklistentzat Babes Sistemak deituak (MPS). Birziklatutako kautxua errepideetako hesi metalikoetan kolpeak absorbatzeko motelgailulez erabiltzearen onurek motibatuta, tesi honek erabilitako pneumatikoetan oinarritutako material baten karakterizazioan oinarritutako lana aurkezten du. Lan hau EHU-ko ikerkuntza proiektu baten markoan kokatzen da; proiektuaren helburu nagusia erabilitako pneumatikoetako kautxua birziklatzeko / leheneratzeko aukerak aztertzean datza. Birziklatze-prozedura desberdinei buruz, bulkanizatutako kautxutik birrindutako partikulen tamainei buruz, kautxu partikula hauek beste osagai batzuekin nahastatuz osatu daitezkeen konposatu soluzio posibleetan, nahaste hauen proportzioetan eta abarretan xehetasunetan sartzen da.

Garrantzitsua da materialaren portaera mekanikoa ulertzea eta espezifikoki nahasteen abiadurarekiko dependentzia, karakterizazio egoki baten ezagutza jasotzeko asmoz; hortaz, hainbat konpresiozko saiakuntza egin dira. Saiakuntzetarako makina baten edo beste baten aukeraketa deformazio abiaduraren aplikazio eremuaren menpe dago; ez da existitzen deformazio abiaduren eremu guztia kontuan hartzen duen instalazio unibertsalik[11,12]. Normalean 1 s^{-1} - 100 s^{-1} tartean dagoen deformazio abiadurapean egiten diren saiakuntza esperimentaletarako deformazio-abiadura handiko saiakuntza makina serbo-hidraulikoak erabili ohi dira[13]. Halere, 10-60 s^{-1} tartean arazo bat ematen da makina hauekin; izan ere, bibrazio batzuk ematen dira tentsio-deformazio erantzun esperimentala distortsionatzen dutenak, datu hauek alferrekoetan bihurtuz. Bibrazio hauek "system ringing" edo "erresonantzia-sistemak" moduan ezagunak dira literatura espezializatuan eta saiakuntzako makinaren modu nagusien eszitazioek sortuak dira eta frekuentzia natural batean edo gehiagotan oszilazioak sortzen dituzte[14], datu esperimentalak kaltetuz.

Normalean, ikertzaileek bibrazio hauen ikasketa kuantitatiboa egin dute saiakuntza makina askatasun gradu bakarreko sistema moduan kontsideratuz nagusiki, zeinek prozesuan nahasitako aldagaien ulermen orokor batera eraman duen. Hala ere, iragarpen analitikoen eta behaketa esperimentalen arteko desadostasunak detektatu dituzte askatasun gradu bakarreko hurbilketarekin, eta beraz, makinaren ezaugarri dinamikoen ikasketa zehatzagoaren beharra jakinarazi da. Hemen aurkeztutako lanak betebehar honi heltzen dio MTS 819.10 abiadura handiko saiakuntza makinaren portaera dinamikoaren karakterizazio zehatz baten bitartez.

1.2 TESIAREN HELBURUA

Tesi honen helburu nagusia birziklaturiko kautxuarekin eta dentsitate txikiko polietileno linealarekin osaturiko nahastearen kolpeen aurreko karakterizazio mekanikoan datza, errepideetako hesietako estaldura bere aplikazio potentzial modura aztertzeko asmoz. Nahastearen osagaien proportzio egokiak lortzea espero da betebeharrak betetzeko. Helburu honekin abiadura handiko makina serbo-hidrauliko batean deformazio abiadura altuko konpresiozko saiakuntzak egin dira. Hortaz, tesiaren helburu espezifikoak ondokoak dira:

- Hiru nahaste prestatu dira kautxu birziklatuarekin eta dentsitate txikiko polietileno linealarekin, osagai bakoitzaren proportzio desberdinekin eta lau dentsitate desberdinekin. Makinaren lau abiadura desberdinetan egin dira saiakuntzak. Abiadura altuenean indar-denbora seinalean ondulazioak agertu dira, "system ringing" edo "erresonantzia-sistemak" moduan ezagutuak. Oszilazio hauek datu esperimentalak alferreko bihurtzen dituzte. Hortaz, saiakuntza makinaren, hots, MTS 819.10 makinaren, Analisi Modal Esperimentala egitea beharrezkoa da ondulazio hauen jatorria analizatzeko asmoarekin. Frekuentzia naturalak, moduak eta moteltze faktoreak aterako dira eta parametro modal hauetatik prozesuaren eredu matematikoa garatzea itxaroten da. Eredu matematiko hau "system ringing" horretan eraginik handiena duten moduak detektatzeko erabiliko da kautxuarengan abiadura altuetan saioak egiten direnean eta kuantitatiboki iragartzeko prozesuan sorturiko bibrazioen anplitudeak. Modu honetan materialaren kurbak zuzentzea itxaroten da.
- Literaturatik eredu material bat aukeratu eta bere parametroak Particle Swarm Optimization (PSO) algoritmoaren bitartez doituko dira. Algoritmo hau hautatu izanaren arrazoiak, bere erraztasuna, sendotasuna eta konbergentzia azkarra dira. PSO algoritmoa optimizazio metodo moldaerraz bat da, minimo lokaletatik urruntzeko gai dena eta ondorioz, minimo globalera irits daitekeena, optimizatu nahi den funtzioa os ez-lineala izanda ere. Doitu beharreko parametroek bilatze-espazioan zehar, minimo globalera iritsi arte, mugitzen diren partikulen posizioak definitzen dituzte.
- Hurrengo helburua eredu hau LS Dyna programan inplementatzeko metodologia ezartzean datza, bai Matlaben, baita LS Dynan ere. Programaren liburutegian ez denez oraindik eredu hau esistitzen, materialaren azpirrutina bat sortuz egingo da

hau. Beraz, probeten deformazio abiadura altuko konpresiozko saiakuntzen analisi esplizitua egitea itxaroten da, hau da, saiakuntza esperimentalen simulazioak. Hurrengo urratsa, tesi honen helburuetatik at daudenak, errepide hesien simulazioak maniki batekin egitea litzateke, eta azkenik, simulazio hobereneko konfigurazioarekin saiakuntza errealak egitea.

1.3 TESIAREN EDUKIAK ETA EGITURA

Tesi hau zazpi kapitulutan zatitu da. Tesiaren ikuspegi orokor bate matearen helburuarekin jarraian kapitulu bakoitzaren deskribapen labur bat egiten da.

2. kapituluak kautxu birziklatuan eta polietilenoan oinarrituta dauden existitzen diren materialak aurkezten ditu. Ondoren, existitzen diren eredu hiperelastiko eta biskoelastiko nagusiak laburbiltzen dira, Yang-en ereduaren hautaketarekin, zein lan honetan erabiliko den.

Hurrengo kapituluan, 3. ean, deformazio abiadura altuko konpresiozko saiakuntzak erakusten dira. Saiakuntza hauetan erabilitako materialaren probetak osagaien hiru proportzio desberdinekin egin dira, hau da, 60/40, 75/25 eta 90/10, eta lau dentsitate desberdinekin, 0.7, 0.8, 0.9 eta 1 g/cm^3.

Deformazio abiadura altueneko emaitza esperimentalak filtratzeko metodo bat garatu da 4. kapituluan. Nahi ez diren ondulazioak erakusten dituzten hondaturiko material kurbak zuzenduak izan dira; honetarako, jatorrizko neurketei iragarritako ondulazioak kenduz, kurba leunduak lortuz. Leundutako kurba hauek deformazio abiadura altuetan modu egokian isladatzen dute benetako naterialaren portaera. Modu honetan, deformazio abiadura altuenei dagozkien tentsio-luzapen kurbak prozesatuak dira eta posible egiten da berauek erabili ahal izatea ondorengo kapituluan egiten diren analisietan.

Yang-en materialaren ekuazio konstitutibo edo osagarria 5. kapituluan azaltzen da. Eredu honen hiru parametro hiperelastikoak minimo karratuen bitartez doituak dira, Particle Swarm Optimization algoritmoa zati biskoelastikoari aplikatzen zaiolarik hiru parametro biskoelastikoak doitzeko asmoarekin. Jarraian makinaren abiadura altuenei dagozkien kurbak Yang-en ereduarekin lortutakoekin konparatzen dira, azken honen parametroen balioetan aurretik doitutako balioak erabiltzen direlarik.

6. kapituluan LS Dyna programan inplementatua izango den materialaren azpirrutina deskribatzen da, ekuazio osagarri honekin konpresiozko saiakuntza esperimentalen simulazioak egiteko. Ondoren, maniki baten errepide hesi baten kontrako kolpearen simulazioak egin nahi dira (tesiaren helburuetatik kanpo), nahaste hoberena erabiliko delarik estaldura gisa.

Eta azkenik, 7. Kapituluan lan honetatik eratorritako ondorio nagusiak eta etorkizuneko ikerketa-lerroak laburbiltzen dira.

2.
ARTEAREN EGOERA

2.1 SARRERA

Urtero, pneumatikoen industriak 3 milioi tona pneumatiko erabili baino gehiago sortzen ditu[15,16]. Kautxua erretikulatua dagoenez bulkanizazioaren eraginez, hari emandako irtenbideak hiru arlo nagusitara mugatzen dira: balorizazio energetikoa errekuntza/pirolisi prozesuaren bitartez (pneumatiko erabilien % 40 gutxi gorabehera), zabortegiak (% 25) eta birziklapen prozesua (% 35). Azken aukera hori litzateke estrategiarik onena bere balioa berreskuratzeko[17], bai arrazoi ekonomikoengatik bai ingurumen arloko arrazoiengatik, produktu horiei balio erantsirik handiena ematen baitie.

Material horretarako soluzio bat izan daiteke pneumatiko erabilietatik eratorritako kautxu birziklatua errepideetako hesien estaldura gisa erabiltzea. Hala, motoziklistek jasandako inpaktuen energia xurgatu eta motoziklistak zauri larrietatik babestuko lituzke. Dentsitate txikiko polietilenoak (LDPE) itsasgarri gisa funtzionatzen du kautxuaren partikulak elkarri lotzeko. Etileno binil azetatoarekin (EVA) eta polietileno desberdinekin hainbat proba egin ondoren, azkenean, dentsitate txikiko polietileno lineala aukeratu zen, material horrek % 90erainoko kautxu birziklatua duen nahasketa egitea ahalbidetzen duelako. Izan ere, ahalik eta kautxu birziklatu gehien erabiltzea lehenetsi zen proiektuan.

Nahasketa horretatik eratorritako material konposatua merkea da. Estrusioaren bidez transformatu daiteke sekzio luze eta konstanteko produktuak lortzeko, eta propietate elastikoak gorde ditzake 60 °C-tik gorako tenperaturetan, bere aplikazioa kontuan hartuta.

Atal honen helburu nagusia eredu konstitutibo mekaniko egokia aukeratzea da, kautxu birziklatuarekin eta dentsitate txikiko polietileno linealarekin (LLDPE) egindako nahasketarako. Horretarako, lehenik eta behin, existitzen diren mota horretako materialen berrikuspena aurkeztu da eta, ondoren, propietate hiperelastikoak eta biskoelastikoak dituzten ereduen berrikuspena egingo da.

2.2 KAUTXU BIRZIKLATUAN ETA POLIETILENOAN OINARRITUTAKO MATERIALAK

Proiektu hau gauzatzeko ideiak hemen du jatorria: aplikazio industrialak bilatzea osagai nagusitzat kautxu birziklatua duen horri. Kautxua birziklapen plantetatik ateratzen da, eta 3 eta 5 mm arteko partikulak edo handiagoak ditu. Era horretara lortutako osagaia hauts bihurtutakoa baino merkeagoa da eta maneiatzeko errazagoa. Birrindutako pneumatiko erabilietatik lortutako partikulei pneumatikoen kautxu birrindu (GTR) ere esaten zaie. Oso garrantzitsua da partikulen neurria eta morfologia kontrolatzea[18,19]. Ondoren, GTR hori termoplastikoekin nahasten da, dentsitate txikiko polietilenoa (LDPE)[20-22], dentsitate handiko polietilenoa (HDPE)[18,23-25] eta polipropilenoa (PP)[26] izanik horien artean garrantzitsuenak, elastomero termoplastikoak (TPE)[27] lortzeko.

Hauts bihurtutako kautxua hartu du aintzat polietilenoarekin eta kautxu birziklatuarekin egindako nahasketei buruzko literatura gehienak[20,27-29]. Elastomero termoplastikoaren (TPE) fabrikazioarekin, polietilenoaren gogortasuna hobetzea izan da lan horien helburua. Literaturaren arabera, honako hauek dira GTR daukan TPEak ekoizteko baldintzak, nahasketaren osagaien arteko atxikitze interfasea hobetu dadin[24,29,30]: elastomero (fresko) gehiago erabiltzea, konpatibilizadoreak erabiltzea edo behinik behin GTR partzialki desbulkanizatzea[20].

Besteak beste, aplikazio ohikoenetan[31] GTR duten nahasketak erabili dira kirol eta aisialdi guneak estaltzeko, errepideetako elementuekin nahasteko (kautxu birziklatuaren tamaina handiagoa denean zoladuretan erabiltzen da), pneumatikoetarako, edo kautxoari edo termoplastikoari eransteko kantitate txikietan. Lan honetan, errepideetako hesiak estaltzeko erabili da TPE materiala, LLDPErekin batera.

2-1 Irudia. Kautxu birziklatuarekin eta dentsitate txikiko polietileno linealarekin egindako nahasketaren laginak, segurtasun hesi eta zutabe itxurakoak.





2-2 Irudia. Teilak

Hainbat hurbilketa egin izan dituzte ikertzaile desberdinek TPE hauen portaera mekanikoaren eredu bat ezartzen saiatuz. Ikerketa hauetatik abiatuz, kautxuaren

propietate hiperelastikoarekin batera, nahaste honek erakusten duen biskoelastikotasun ez-lineala ere kontuan hartu behar da. Mota horretako materialen propietate mekanikoak zehazteko hiru modu daude, hainbat ikertzailek idatzitako literaturaren arabera[32]. Lehenengoa, hurbilketa molekularra, kate sarea deskribatzen duena[33]. Bigarrena, metodo mikromekanikoa edo homogeneizazio metodoa, askotan material metalikoen alorrean erabilia, baita polimeroen alorrean ere[26,32,34]. Bigarren hurbilketa horretan, nahasketaren osagai bakoitzaren portaera hartzen da kontuan. Eta azkenik, hurbilketa fenomenologikoan oinarritutako ereduen garapena.

2-3 Irudia. Kautxu birziklatuarekin eta dentsitate txikiko polietileno linealarekin egindako nahasketa errepideko hesi batean jartzeko simulazioa



2-4 Irudia. Adibide erreala, nahasketa errepideko hesi batean kokatua. Abantailarik handienetakoa da, jartzen erraza eta merkea izateaz gain, malgua dela itxura desberdineko hesietara egokitzeko.

Propietate horiek sakonago azalduta daude hurrengo azpiatalean.

2.3 EXISTITZEN DIREN MATERIALEN EREDU KONSTITUTIBOAK

Ekuazio konstitutibo batek adierazten du zein den tentsioaren eta deformazioaren eta tenperaturaren arteko erlazioa; hau da, material baten benetako portaera erakusten du. Tesi honetan hizpide dugun material konposatuaren ezaugarriak direla-eta, hiperelastikotasunari erreparatu behar zaio lehenik eta behin, kautxua baita haren osagai nagusia. Denboraren eta kautxuaren deformazio abiaduraren efektuak nabarmenak direnean, kontuan hartzekoa da portaera biskoelastikoa.

Horrela bada, jarraian, existitzen diren ereduak aztertzeari ekingo diogu. Izan ere, beharrezkoa da ekuazio konstitutiboaren parametro kopurua ahalik eta txikiena izatearen garrantziaz ohartzea eta materialaren portaera ahalik eta ondoen zehaztea, hau da, parametro kopuruaren eta materialaren portaera zehatz azaltzearen artean dagoen erlazioa optimizatzea.

Kautxu bulkanizatuaren –betegarriak dituen kautxua barne– propietate mekanikoetako bat konprimagarritasun eza[9] da. Idealizazio bat da, kontuan hartuta presio hidrostatikoak eragindako bolumen aldaketak txikiak direla konpresiozko indarrek eragindakoen aldean. Lan honetan, material konposatua ia, baina ez guztiz, konprimaezintzat[9,35-39] hartu da, zenbakizko arazoak saihesteko eredua FE softwarean sartzean.

2.3.1 Eredu hiperelastikoak

Kautxuak deformazio handiak jasaten ditu karga baten menpe dagoenean, eta ia guztiz berreskuratzen du hasierako forma karga kentzean. Kautxu birziklatua beteta dago, eta horrek portaera guztiz ez-lineala eragiten du. Hori dela eta, oso zaila da tentsioa deformazioarekin erlazionatzeko matrize elastiko baliagarria zehaztea, matrize horretako osagaiak deformazioaren menpe daudelako eta ez direlako konstanteak. Irtenbidea da material elastiko guztiek daukaten deformazio energiaren funtzioa erabiltzea. Literaturan zenbait deformazio energia daude zehaztuta; esate baterako, Petiteauk[40] zenbait adibide erakusten ditu.

Atal honen helburu nagusia ekuazio konstitutibo hiperelastiko ezagunenak erakustea da. Horretarako, lehenengo ingurune jarraien mekanikari buruzko oinarrizko kontzeptu batzuk gogoraraziko dira; izan ere, aztertzen ari den materialak guztiz betetzen du okupaturiko espazioa eta, beraz, ingurune jarrai[41] gisa jokatzen du.

Gorputz deformagarri bati kanpoko indar bat aplikatzen zaionean, gorputzak desplazamendua jasaten du. Desplazamendu hau gorputz zurrun baten desplazamenduaren eta deformazioaren batuketan bana daiteke. Deformazioaren dimentsioaren arabera, bi teoriaren bitartez azter daiteke: batetik, deformazio infinitesimalen teoria deformazio txikietarako eta, bestetik, deformazio finituen teoria deformazio handietarako, elastomeroen kasurako alegia. Biskoelastikotasuna ere kontuan hartzekoa da eta hori da, hain zuzen ere, tesiaren ardatza.

Deformazioak bi ikuspegitatik azter daitezke: Lagrangeren eta Eulerren deskripzioak. Lehenengoan, behatzailea konfigurazio erreferentzialean dago eta denboran zehar partikulen posizio aldaketak behatzen ditu. Bigarrenean, behatzailea uneko konfigurazioan dago, mugimenduan dagoen koordenatu sistema batean. Lagrangeren deskripzioa gailentzen denez solido deformagarrien mekanikan –Eulerren deskripzioa fluidoen mekanikan erabiltzen da–, hori erabiliko dugu aurrerantzean.

Horrenbestez, **x** uneko konfigurazioan –hots, sistema deformatuan– partikula/puntu material baten posizio bektorea bada eta **X** erreferentziazko konfigurazioan –sistema deformatu gabean– haren posizio bektorea bada, euren arteko erlazioa h mapaketa funtzioaren bitartez adierazten da:

$$x = h(X,t) \tag{2.1}$$

Partikulen desplazamenduak ingurune jarraien mekanika ez-linealean funtsezkoa den matrize baten bitartez lortzen dira. Matrize horri[42] deformazio gradientearen matrizea (**F**) deritzo:

$$F_{ij} = \partial x_i / \partial X_i \tag{2.2}$$

Matrize horrek guztiz zehazten du puntu baten inguruan dagoen mugimendua. Erlazio horrek deskribatzen du nola aldatzen den material elementu lineal baten luzeera eta norabidea deformazioaren eraginez.

F_{ij} gorputz zurrunen biraketen menpe dagoenez gero, ez da egokia deformazioa neurtzeko. Honela deskonposa daiteke: F=RU (edo F=VR); U eta V matrize definitu positiboak eta simetrikoak dira eta R, aldiz, matrize ortogonala, deskonposaketa polarraren teoreman erakutsi bezala. Deformazioa neurtzeko aproposak dira U eta V, ez dakartelako gorputz zurrunen biraketarik. Hala ere, zehazten zailak dira praktikan.

Hauek dira Cauchy eta Green-en ezkerreko (**B**) eta eskuineko (**C**) deformazio tentsoreak:

$$B = FF^T \tag{2.3}$$

$$C = F^T F \tag{2.4}$$

Tentsore horiek deformazioa neurtzeko erabil daitezke, gorputz zurrunen mugimenduak ez baitie eragiten. I_1, I_2, I_3 deformazio inbariante berberak dituzte:

$$I_1(C) = tr(C) \tag{2.5}$$

$$I_2(C) = \frac{1}{2}\left[\left(tr(C)\right)^2 - tr(C^2) \right] \tag{2.6}$$

$$I_3(C) = \det(C) \tag{2.7}$$

Luzapen indizeak C-ren (edo B-ren) balio propioen erro karratuak dira eta λ_i^2 deritze. Inbariante nagusiak honela adieraz daitezke:

$$I_1 = \lambda_1^2 + \lambda_2^2 + \lambda_3^2 \tag{2.8}$$

$$I_2 = \lambda_1^2\lambda_2^2 + \lambda_2^2\lambda_3^2 + \lambda_3^2\lambda_1^2 \tag{2.9}$$

$$I_3 = \lambda_1^2 \lambda_2^2 \lambda_3^2 \tag{2.10}$$

Hiperelastikotasunak ezartzen du deformazio energiaren funtzioaren existentzia eta hortik eratortzen dela tentsioa. Material elastikoa den heinean, material hiperelastikoa gai da deformatzeko eta hasierako forma berreskuratzeko esfortzua kendu ostean, energia barreiatu edo disipatu gabe. Deformazio handiak/finituak jasaten ditu, eta $\boldsymbol{\psi}$ Helmholtz-en energia askearen funtzio bat du:

$$P = \frac{\partial \psi(F)}{\partial F} \tag{2.11}$$

Orokorrean, deformazio energiaren edo metatutako energiaren funtzio esaten zaio $\boldsymbol{\psi}$-ri, eta energiaren funtzio eskalarra da –material hiperelastikoak izaera kontserbakorra du–. F lehen definitutako deformazio gradientea da eta P, berriz, Piola-Kirchhoff-en lehen tentsio tentsorea.

Normalean, deformazio handietarako, P Piola-Kirchhoff-en lehen tentsio tentsorea edo tentsio nominalaren tentsorea eta σ Cauchy-ren tentsio tentsorea edo benetako tentsioaren tentsorea erabiltzen dira. Piola-Kirchhoff-en lehen tentsio tentsoreak uneko konfigurazioan dauden indarren eta erreferentziazko edo hasierako konfigurazioan dauden azaleren arteko erlazioa ezartzen du. Cauchy-ren tentsio tentsoreak, bestalde, uneko konfigurazioan dauden indarren eta azaleren arteko erlazioa ezartzen du. Hauxe da Cauchy-ren tentsio tentsorearen eta Piola-Kirchhoff-en lehen tentsorearen arteko erlazioa:

$$\boldsymbol{\sigma} = J^{-1} P = J^{-1} \frac{\partial \psi(F)}{\partial F} F^T \tag{2.12}$$

Non J bolumen indizea den.

Bi hurbilketa nagusi hauetan oinarritzen dira literaturan deformazio energia askea deskribatzeko agertzen diren adierazpenak:

1- Teoria estatistikoa edo zinetikoa. Polimeroaren kate sarearen edo egituraren propietate fisikoak hartzen ditu kontuan. Teoriaren oinarriei jarraituz, kautxuaren indar elastikoa batez ere entropiaren murrizketaren ondorioz gertatzen da, aplikatutako luzapena areagotzen denean presio konstantearen edo bolumen konstantearen eraginpean.

2- Teoria fenomenologikoa. Ekuazioak datu esperimentaletara doitzeko prozedura matematikoa du ardatz. Ez du problema fisikaren ikuspegitik aztertzen eta ez du kontuan hartzen materialen mikroegitura. Ingurune jarraien mekanikarren gaineko marko matematikoan oinarritzen da.

Eredu estatistikoei dagokienez, Treloar-en eredua –eredu neo-hookearra ere esaten zaio, Treloar-ek[43] garatua 1943an– edo Arruda-Boyce-ren[44] eredua (1993) aipa daitezke. Eredu horien abantaila nagusia da kautxuaren ezaugarriei buruzko azalpen fisikoa eskaintzen dutela, eredu molekular espezifiko batean oinarritzen direlako. Alabaina, zehaztasuna falta zaie, emaitza esperimentalekin alderatuz gero.

Hurbilketa fenomenologikoari dagokionez, teoria horren barruan sartu zen lehen eredu garrantzitsua Mooney-k[45] proposatu zuen 1940an, soilik oinarri fenomenologikoak ardatz hartuta. Ondoren, Rivlin-ek[46] aldaketa batzuk txertatu zituen eta Mooney-Rivlin eredua sortu zen, gaur egun erabiltzen den eredu ezegunenetako bat. Rivlin-en ereduari jarraituz, N=1 denean Mooney-Rivlin eredua ((2.14) ekuazioa) lortzen da, eta C_{01}=0 denean, berriz, eredu neo-hookearra. Autore batzuek, adibidez Yeoh-k[47], proposatu zuten soilik I_1-en menpe dagoen deformazio energia bat; izan ere, haien ustetan badirudi I_2-k ez duela eraginik deformazio energian kautxu betearen portaera kontuan hartzerakoan. Gent-ek[48] eredu propioa garatu zuen; bertan, berezitasun modura, I_1-k balio maximoa (I_m) du.

Eredu fenomenologikoen arazo nagusia ereduaren egonkortasuna bermatzea da, horrek normalean mugak edo murriztapenak eskatzen baititu. Aurreikuspen ez-fisikoak ematen dituzten parametroak lortzeko aukera dagoenez, konstante horiek kontu handiz aukeratu behar dira, errealitate fisikoa errespetatuz. Konstante horiek Drucker-en egonkortasun printzipioari jarraitu behar diote. Beste arazoetako bat da eredu horiek ez direla gai beste deformazio modu batzuk aurreikusteko, konstanteetara egokitzeko erabilitakoaz gain.

2-1 taulan, literaturan azaldutako teoria fenomenologiko nagusiak daude laburbilduta, aukeraturiko eredua eredu horren barruan sartzen baita. Informazio gehiago eskuratzeko, honako hauek egindako azterketetara jo daiteke: Marckmann eta beste[49], Steinmann eta beste[50], Gil-Negrete[9], Holzapfel[42] edo Verron[51].

2-1 Taula. Eredu fenomenologiko nagusiak

Eredu fenomenologikoa	Deformazio energia (ψ)	
Mooney[45] (1940)	$\psi = C_1(I_1-3)+C_2(I_2-3)$	(2.13)
Rivlin's form[46] (1948)	$\psi = \sum_{i+j=1}^{N} C_{ij}(I_1-3)^i (I_2-3)^j$	(2.14)
Rivlin and Saunders[52] (1951)	$\psi = C(I_1-3)+f(I_2-3)$	(2.15)
Gent and Thomas[53,54] (1958)	$\psi = C_1(I_1-3)+C_2\ln\left(\frac{I_2}{3}\right)$	(2.16)
Biderman[50] (1958)	$\psi = C_{10}(I_1-3)+C_{01}(I_2-3)+$ $C_{20}(I_1-3)^2+C_{30}(I_1-3)^3$	(2.17)
Carmichael and Holdaway[55] (1961)	$\psi = \sum_{i=1}^{3}\left[\phi(\lambda_i^2)-\phi(1)\right]$ *where* $\frac{d\phi(u)}{du}=\frac{1}{4u}\left[Ae^{\beta\left(\sqrt{u}-\sqrt{u^{-1}}\right)}-2B(u+u^{-1}-2)\right]$	(2.18)
Hart-Smith[49] (1966)	$\frac{\partial\psi}{\partial I_1}=Ge^{k_1(I_1-3)^2}$ *and* $\frac{\partial\psi}{\partial I_2}=G\frac{k_2}{I_2}$	(2.19)
Valanis and Landel[56] (1967)	$\psi=\psi(\lambda_1)+\psi(\lambda_2)+\psi(\lambda_3)$ *and* $\frac{d\psi}{d\lambda}=2\mu\ln(\lambda)$	(2.20)

Alexander	$\psi = \frac{\mu}{2}\left\{ \begin{array}{l} C_1 \int e^{k(I_1-3)^2} dI_1 + C_2 \ln\left(\frac{(I_2-3)+\gamma}{\gamma}\right) \\ +C_3(I_2-3) \end{array} \right\}$	(2.21)
Ogden[57] (1972)	$\psi = \sum_{n=1}^{N} \frac{\mu_n}{\alpha_n}(\lambda_1^{\alpha_n} + \lambda_2^{\alpha_n} + \lambda_3^{\alpha_n} - 3)$	(2.22)
Blatz, Sharda and Tschoegl[58] (1974)	$\psi = \frac{2G}{\alpha} I_{E_\alpha} + B {I_{E_\alpha}}^{\beta}$	(2.23)
Haines-Wilson[49] (1975)	$\psi = C_{10}(I_1-3) + C_{01}(I_2-3) + C_{11}(I_1-3)(I_2-3) + +C_{02}(I_2-3)^2 + C_{20}(I_1-3)^2 + C_{30}(I_1-3)^3$	(2.24)
Yeoh[47] (1990)	$\psi = C_{10}(I_1-3) + C_{20}(I_1-3)^2 + C_{30}(I_1-3)^3$	(2.25)
Arruda-Boyce[44] (1993)	$\psi = \mu \sum_{i=1}^{5} \frac{C_i}{\lambda_m^{2i-2}}(I_1^i - 3)$	(2.26)
Gent[48] (1996)	$\psi = -\frac{E}{6}(I_m - 3) ln\left[1 - \frac{I_1-3}{I_m-3}\right]$	(2.27)
Yeoh and Fleming[59] (1997)	$\psi = \frac{A}{B}[1 - e^{(-B(I_1-3))}] - C_{10}(I_m-3) ln(1 - \frac{I_1-3}{I_m-3})$	(2.28)

Shariff[60] (2000)	$\sigma = \lambda_i \frac{\partial \psi}{\partial \lambda_i} - p = E\sum_{i=0}^{n} \alpha_i \phi_i(\lambda)$ $\phi_0(\lambda) = \frac{2\ln(\lambda)}{3}$ $\phi_1(\lambda) = e^{(1-\lambda)} + \lambda - 2$ $\phi_2(\lambda) = e^{(\lambda-1)} - \lambda$ $\phi_3(\lambda) = \frac{(\lambda-1)^3}{\lambda^{3.6}}$ $\phi_j(\lambda) = (\lambda-1)^{j-1}, j = 4,5,\ldots n$	(2.29)
Beda (2005)	$\psi = \frac{K_0}{\beta}(I_2-3)^{\beta} + \frac{C_1}{\alpha}(I_1-3)^{\alpha} +$ $+C_2(I_1-3) + \frac{C_3}{\varsigma}(I_1-3)^{\varsigma}$ $0 < \alpha < 1$ $0 < \beta < 1$ $1 < \varsigma$	(2.30)
Pucci and Saccomandi[61] (2015)	$\psi = \frac{\mu}{2}\left[(I_1-3) + \frac{\beta}{2}(I_1-3)^2\right]$	(2.31)

2.3.2 Eredu biskoelastikoak

Arestian aipatu bezala, kautxuaren propietate elastikoak ondo azal daitezke eredu hiperelastikoen bitartez, bai kasu kuasiestatikoetan, bai deformazio handiak gertatzen direneko deformazio abiadura handiko kasuetan[40,64]. Hala ere, deformazioak handiak direnean eta aplikatutako indarrek deformazio abiadura moderatua dutenean, 2-5 Irudian ikusten den bezala, deformazio handiko biskoelastikotasuna aplikatu behar da[40], hots, portaera dinamikoa biskoelastikotasunaren menpe adierazi beharra dago. Material biskoelastikoek energia barreiatzen dute kalterik jasan gabe. Horrez gain, deformazioaren historia gordetzen dute; hau da, material horiek memoria daukate, memoria ahula.

Eredu biskoelastiko ez-linealen azterketak aurki daitezke hemen[65,66].



2-5 Irudia. Biskoelastikotasunaren aplikagarritasuna

2-5 irudiari jarraituz eta gogoan hartuta material hori errepideetako hesiak estaltzeko erabili nahi dela motoziklistek inpaktu txikiagoak jasan ditzaten, deformazio handiko biskoelastikotasuna hartu behar da kontuan aztergaian. Beraz, materialaren portaera dinamikoa modelatu behar da biskoelastikotasunaren bitartez.

Denbora eta deformazio abiadura aintzakotzat hartu behar dira. Hauek dira denborarekiko menpekotasunarekin lotuta dauden ohiko fenomenoak:

- Histeresia karga ziklikoetan; hots, kargen eta deskargen kurbek ez dira berdin mantentzen.
- Abiadurarekiko menpekotasuna, tentsioaren eta deformazioaren arteko erlazioan ikus daitekeena. Bestela esanda, deformazio balio bat hartuz gero, deformazio abiaduraren arabera tentsio balio desberdinak lortzen dira.
- Denborarekin tentsioa erlaxatzea, hau da, tentsioa denborarekin txikitu egingo da deformazio mailakatuko kargaren eraginez.
- Fluentzia geldoa, denborarekin deformazioa areagotu egiten da tentsio mailakatuko kargaren eraginez.

Erakutsi da deformazioaren arabera, biskoelastikotasuna deformazio txikiko biskoelastikotasun lineala edo deformazio finituko biskoelastikotasuna izan daitekeela. Lehehengoak modu linealean erantzuten du, hau da, tentsioa eta deformazioa erlazionatuta daude modulu elastikoaren bitartez. Biskoelastikotasun finituak, ordea, portaera elastiko ez-lineala ezartzen du tentsioaren eta deformazioaren artean deformazio

handietan. Teoria horren xedea da deformazio abiadurarekiko menpekotasuna aztertzea, deformazio handietan.

Deformazio handiko biskoelastikotasunaren oinarriak finkatzeko, komenigarria da BISKOELASTIKOTASUN LINEALA[67] berrikustea. Teoria horrek deformazio abiadurarekiko menpekotasuna aztertzen du deformazio txikietan.

Biskoelastikotasun lineala bi formulazioren bidez azter daiteke:

1- Boltzmann-en gainezarpen printzipioak proposatu zuen lehen aldiz tentsioaren eta deformazioaren arteko erlazioa. Asko erabiltzen da printzipioaren aplikazioa, konboluzioko integralaren edo integral hereditarioaren hurbilketa ere deitzen dena. Horren arabera, une jakin bateko deformazioak barik, deformazioren historia guztiak eragiten dio tentsioari. Hortaz, momentuko/uneko tentsioa lor daiteke, deformazio gehikuntza guztietarako tentsioen erantzunak gainezarriz gero. Deformazioaren historia kontuan hartzen da memoria ahularen funtzioen bitartez, Prony-ren serie deritzenak. Ikertzaile batzuek[68-71] biskoelastikotasun linealean oinaritutako BKZ integral fenomenologikoa erabiltzen dute. Hala, ereduaren erantzuna esfortzu guztiak gehituta lortuko da. Materiala isotropoa bada, Boltzmann-en gainezarpen integral[72] honen bitartez adieraz daiteke material biskoelastiko eta zaharkitu gabe baterako tentsio-deformazioaren ekuazio uniaxial eta isotermikoa:

$$\sigma(t) = \int_{-\infty}^{t} G(t-\tau)\frac{d\varepsilon(\tau)}{d\tau}d\tau \qquad (2.32)$$

Aplikatutako deformazioak $-\infty < t < 0$ tartean nuluak direnean, (2.32) ekuazioa honela idatz daiteke:

$$\sigma(t) = \varepsilon_0 G(t) + \int_{0^+}^{t} G(t-\tau)\frac{d\varepsilon(\tau)}{d\tau}d\tau \qquad (2.33)$$

t=0 izanik bat-bateko deformazioren balioa ε_0 denean, une horretako denbora t da eta lehenagoko denbora orokorra τ; non $\tau \in (0,t)$.

(2.33) ekuazioak memoriaren hipotesia, leuntasunaren hipotesia eta errepresentazio matematikoaren teorema (Christensen[73]) ditu oinarrian. Erreferentziazko egoera deformatu gabea eta tentsiorik gabea dela hartuko da

kontuan; beraz, integrala 0^+-tik hasita kalkulatuko da eta $\sigma(t)=0$ eta $\varepsilon(t)=0$ t<0 denean.

2- Bestalde, lehen ordenako eta ordena handiagoko denboraren deribatuak tentsioan eta deformazioan, malguki-motelgailuen ereduetan oinarrituta. Kasu uniaxialetan, malgukiz eta motelgailuz osatutako eredu erreologikoak erabili ohi dira. Tentsioa eta deformazioa erlazionatzeko ekuazio diferentzialak lortzen dira eredu horietatik. Ondoren, hiru dimentsioko kasuetan aplikatzen dira tentsore eran.

Deformazio txikietan, malgukietan eta motelgailuetan oinarritutako ereduak eta konboluzio integraletan oinarritutakoak antzekoak dira, emaitza berberak ematen dituztelarik.

Biskoelastikotasun linealaren aplikazio eremua deformazio txikietan baino ez da baliagarria. Drapaca-k eta bestek[66] adierazi bezala, lege konstitutibo ez-lineal batek baldintza hau bete behar du: eredu linealaren parera murriztea eredua, deformazioak txikiak direnean. DEFORMAZIO HANDIKO BISKOELASTIKOTASUNARI dagokionez, eredu biskoelastiko finituek deskribatzen dute materialaren portaera, deformazioak handiak direnean. Biskoelastikotasun finitua nagusiki bi hurbilketaren bitartez azaltzen da[74]:

1- Batetik, barne aldagaien ereduak daude; horien oinarria da **F** deformazio gradientearen tentsorea zati elastikoaren eta ez-elastikoaren[75] biderkaketa moduan deskonposatzea. Hurbilketa hori hasieran Green-ek eta Tobolsky-k formulatu zuten eta hainbat ikertzaile izan ziren haren jarraitzaile, hala nola Lubliner, Sidoroff, Bergström eta Boyce[76], Shim eta Mohr[77,78]. Oro har, eredu horiek modu esperimentalean balioztatu dituzte. Lan honetan, ez da hurbilketa hori aurkeztuko.

2- Bestetik, integral hereditarioen hurbilketa dago: eredu horiek memoria ahuleko funtzio polinomikoak erabiltzen dituzte, deformazioaren historiak momentuko tentsioan eragiten dituen ondorioak azaltzeko (Simo[79], Drozdov[80]). Boltzmann-en printzipioa deformazio handietara hedatu dute integralen ereduek. Jatorria autore hauen lanean aurki daiteke: Green eta Rivlin[81] eta Coleman and Noll[82] (Biskoelastikotasun Lineal Finitua). Yang-ek eta bestek[68] K-BKZ motako eredu fenomenologikoa erabili zuten. Pouriayevali-k[36,83] integral formako eredua erabili zuen deformazioren menpeko erlaxazio denborarekin batera.

Eredu horietako batzuk hurbilketa fenomenologikoan oinarritzen dira; beste batzuek, aldiz, mikromekanikan dute oinarria. Bigarren hurbilketa horretan sakontzeko, Drozdov eta Dorfmann[84], Bergström eta Boyce[85] eta bertan jasotako erreferentzietara jo dezakete ikertzaileek.

Tesi honek integral hereditarioen hurbilketa hartzen du ardatz. Horrenbestez, hurbilketa horretan garatutako eredu konstitutiboetan jarri da arreta.

Green eta Rivlin-en[81] teoriak aurreikusten duenez, t denboran tentsioa eta ondoko historia integralen batura berdinak dira, dimentsio bakarreko deformazio kasuetan:

$$\sigma(t)=\int_0^t G_1(t-\tau)\frac{d\varepsilon(\tau)}{d\tau}d\tau+\int_0^t\int_0^t G_1(t-\tau_1)G_2(t-\tau_2)\frac{d\varepsilon(\tau_1)}{d\tau_1}\frac{d\varepsilon(\tau_2)}{d\tau_2}d\tau_1 d\tau_2+\ldots \qquad (2.34)$$

Ekuazio horren bitartez, Cauchy-ren tentsioa eta deformazioaren historia erlazionatu zituzten. Green eta Rivlin-ek deformazioaren historiaren funtzional lineala erabili zuten (Frechet-Volterra-ren garapena), non G_1, G_2… egindako trunkatura ordenaren menpeko erlaxazio funtzioak diren.

Coleman-ek eta Noll-ek[82] proposatzen dute Biskoelastikotasun Lineal Finituaren teoria (FLV) erabiltzea. Teoria horrek hauxe baino ez du kontuan hartzen: tentsioak duen menpekotasuna iragan hurbileko deformazio gradientearekiko, puntu baten gertuko ingurunean gertatu dena. Tentsioa deskonposatu egiten da orekako tentsioan ematen den tentsio erantzunean, hau da, deformazio abiadura infinituki geldoan; eta biskositateak eragindako gaintentsioan ematen den tentsio erantzunean. Materialaren memoria neurtzeko erabiltzen da erlaxazio funtzioa. Material biskoelastikoetarako hastapeneko lege konstitutibo gehienak memoria ahularen teoriaren baitan garatu ziren. Hala, integral linealak tentsioa lortzeko deformazioaren historia zehazteko erabiltzen dira:

$$\sigma(t)=\sigma^{\infty}\{C(t)\}+F(t)\int_{-\infty}^{t} g\left(C(t),t-\tau\right)\frac{dE_t(\tau)}{d\tau}d\tau F^{T}(t) \qquad (2.35)$$

Solido biskoelastiko ez-linealen ekuazio konstitutiboetarako, ez dago oro har onartuta ondo zehazturiko eredurik, ez behintzat solido biskoelastiko linealetarako dagoen neurri berean. Erantzunaren funtzionalen hainbat errepresentazio espezifiko aurki daitezke literaturan, eta horiek laburtuta daude Lockett-en[86] liburuan, eta Wineman-en[65] zein Drapaca eta besteren[66] analisi artikulu berriagoan.

Bernstein, Kearsley eta Zapas-ek[87] eta Kaye-k[88] beste teoria bat proposatu zuten, K-BKZ teoria deritzona. Tanner-ek[89] ereduaren eta haren bertsioen loturak aztertzen ditu, ingurune jarraien mekanikarekin, teoria molekularrarekin eta saiakuntzekin. Solidoei zein fluidoei aplika dakieke K-BKZ eredua. Hauxe da material konprimaezinetan erabiltzen den adierazpen orokorrena:

$$\sigma(t) = -pI + 2\int_{-\infty}^{t}\left(\frac{\delta U}{\delta I_1}C_t^{-1}(\tau) - \frac{\delta U}{\delta I_2}C_t(\tau)\right)d\tau \qquad (2.36)$$

U potentziala da, eta denboraren eta I_1 eta I_2-ren menpe dago.

Bestalde, Chang-ek, Bloch-ek eta Tschoegl-ek[90] integral lineala duen eredu bat garatu zuten, CBT deritzona. Boltzmann-en gainezarpen integralean deformazio orokorra neurtzean oinarritzen da; deformazioaren efektuak eta denbora banatzen dituzte erlaxazio funtzioan.

$$\sigma(t) = -pI + \frac{1}{n}\int_{-\infty}^{t} G(t-\tau)\left[B^{n/2}(t)\frac{dC_t^{n/2}(\tau)}{d\tau} + \frac{dC_t^{n/2}(\tau)}{d\tau}B^{n/2}(t)\right]d\tau \qquad (2.37)$$

Parametro materialak dira n eta G(τ).

Christensen[73]:

$$\sigma(t) = -pI + F(t)\left[g_0 I + \int_0^t g_1(t-\tau)\frac{dE(\tau)}{d\tau}d\tau\right]F^T(t) \qquad (2.38)$$

Jarraian ageri den taulan laburbilduta daude arestian aurkeztutako teoria biskoelastiko ez-linealak:

2-2 Taula. Eredu biskoelastiko ez-lineal nagusiak

EREDU BISKOELASTIKO EZ-LINEAL NAGUSIAK		
Green and Rivlin[81] (1957)	$$\sigma(t)=\int_0^t G_1(t-\tau)\frac{d\varepsilon(\tau)}{d\tau}d\tau+\int_0^t\int_0^t G_1(t-\tau_1)G_2(t-\tau_2)\frac{d\varepsilon(\tau_1)}{d\tau_1}\frac{d\varepsilon(\tau_2)}{d\tau_2}d\tau_1 d\tau_2+\ldots$$	(2.34)
Coleman and Noll[82] (1961)	$$\sigma(t)=\sigma^{\infty}\{C(t)\}+F(t)\int_{-\infty}^t g\left(C(t),t-\tau\right)\frac{dE_t(\tau)}{d\tau}d\tau F^T(t)$$	(2.35)
Bernstein, Kearsley and Zapas[87] and Kaye[88] (1962)	$$\sigma(t)=-pI+2\int_{-\infty}^t\left(\frac{\delta U}{\delta I_1}C_t^{-1}(\tau)-\frac{\delta U}{\delta I_2}C_t(\tau)\right)d\tau$$	(2.36)
Chang, Bloch and Tschoegl[90] (1976)	$$\sigma(t)=-pI+\frac{1}{n}\int_{-\infty}^t G(t-\tau)\left[B^{n/2}(t)\frac{dC_t^{n/2}(\tau)}{d\tau}+\frac{dC_t^{n/2}(\tau)}{d\tau}B^{n/2}(t)\right]d\tau$$	(2.37)
Christensen[73] (1980)	$$\sigma(t)=-pI+F(t)\left[g_0 I+\int_0^t g_1(t-\tau)\frac{dE(\tau)}{d\tau}d\tau\right]F^T(t)$$	(2.38)
Fung[91] (1981)	$$\sigma(t)=-pI+F(t)\left\{K^{(e)}[C(t)]+\int_0^t K^{(e)}[C(s)]\frac{\partial G(t-s)}{\partial(t-s)}ds\right\}F(t)^T$$	(2.39)
Morman[92] (1988)	$$\sigma(t)=-pI+\frac{E(t)}{E_e}\left(\Gamma_1 B+\Gamma_{-1}B^{-1}\right)$$ $$\Gamma_1=2\frac{\partial\psi(I_1(t-s),I_2(t-s))}{\partial I_1(t-s)}$$ $$\Gamma_{-1}=-2\frac{\partial\psi(I_1(t-s),I_2(t-s))}{\partial I_2(t-s)}$$	(2.40)

2.4 AUKERATUTAKO EKUAZIO KONSTITUTIBOA

Tesian aztergai den material konposatuari buruzko informazioa mugatua da, haren mikroegiturari eta konposizioari dagokionez. Hori dela eta, lan honetan eredu fenomenologikoa hautatu da ereduaren zati hiperelastikoari dagokionez. Rivlin-en eredua hiru parametrorekin aukeratu da alor hiperelastiko hori deskribatzeko, kontuan hartuta gai dela erantzun zehatzak iragartzeko konpresio saiakuntzetan oinarrituta eta matematikoki kalkulatzeko erraza dela. EF kode guztietan ere ezarrita dago.

Aurkeztutako eredu biskolastikoei dagokienez, integral hereditarioen hurbilketa hautatu da, eta horren barruan K-BKZ eredua, Yang-ek eta bestek[68] txertatutako aldaketa batekin. Eredu hori sakonago aztertuko da 5. kapituluan.

Material homogeneo, isotropo eta konprimaezinetarako eredu biskoelastikoaren adierazpen orokorra[86] kontuan hartzen bada:

$$\sigma = -p + F(t) \cdot \Omega_{\tau=-\infty}^{t} \{C(\tau)\} \cdot F^{T} \tag{2.41}$$

Matrizearen funtzionala honela idatz daiteke:

$$\Omega_{\tau=-\infty}^{t} \{C(\tau)\} = \int_{-\infty}^{t} \phi(I_1, I_2) m(t-\tau) \dot{E}(\tau) d\tau \tag{2.42}$$

Yang-ek ereduari egiten dion ekarpena ϕ funtzioaren zehaztapen honetatik dator:

$$\phi(\tau) = C_2 + C_3 (I_2 - 3) \tag{2.43}$$

Erlaxazio denboraren gai bakarra aukeratu denez m(t-τ) erlaxazio funtzioan, ikus daitekeenez, parametro gutxi behar dira (hiru baino ez) portaera biskoelastikoa deskribatzeko.

Aukeratutako eredu hiper-biskoelastikoaren helburua materialaren portaera ahalik eta zehatzen azaltzea da, ahalik eta parametro gutxien erabilita.

3.
MATERIALAREN SAIAKUNTZA ESPERIMENTALA

3.1 SARRERA

Kapitulu honetan, bulkanizatutako kautxu birziklatuz, dentsitate txikiko polietileno linealez (LLDPE) eta titanio dioxidoz (TiO_2) osatutako material konposatuaren portaera mekanikoa aztertuko da. Material hori errepideetako hesien estaldura gisa erabili nahi da, talka batean sortutako energiaren zati bat xurga dezan.

Elastomeroek gaitasun handia dute deformazioak jasateko apurtu gabe, tentsioa areagotu ahala, materiala konprimatuz doalarik. Gainera, efektu biskoelastiko ez-lineala ere antzematen zaio barreiatze propietatek erakusten dituen kautxuari. LLDPEak energia xurgatzeko gaitasun handia dauka.

Material berezia denez, haren propietate mekanikoak ez dira modu sistematikoan deskribatu. Kontuan hartuta aplikazioan konposatuak talka bat jasango duela, materialak konpresio tentsioko egoerak nozituko ditu, denboran aldakorrak diren deformazio abiaduren arabera. Hori dela eta, beharrezkoa da baldintza jakin batzuetan saiakuntzak egitea. Batik bat konpresiozko talka saiakuntza eta pisu erorketaren saiakuntza erabiltzen dira konpresio baldintzen pean materialak duen kolpeak xurgatzeko edo moteltze gaitasuna neurtzeko. Pisu erorketaren saiakuntzaren bidez aurretik egindako azterketa batean lortu diren emaitzen arabera, deformazio abiadura handiko saiakuntzak egin dira hainbat karga egoeratan, konposatuaren propietateak ezagutze aldera, eta ikus daiteke,

deformazio handietan, material horrek deformazio abiadurarekiko duen menpekotasuna esanguratsua dela.

Oso zorrotzak dira "UNE 135900[93,94] Segurtasun hesietan eta petriletan motoziklistak babesteko sistemen portaera ebaluatzea. 2. zatia: portaera motak eta onarpen irizpideak" arauaren betekizunak. Arauari jarraiki, talka saiakuntzak egiteko, instrumentaturiko maniki baten buru eta lepo aldea jaurti behar da babes sistema baten kontra 60 km/h-ko abiaduran. Saiakuntzan parametro biomekaniko batzuk neurtzen dituzte, eta ezin dituzte zehazturiko balioak gainditu. Hori dela eta, homologaturiko babes sistema diseinatzeko jarraitu beharreko prozedura izango litzateke: dagozkion saiakuntzak egitea eskala errealeko prototipoekin eta egiaztatzea ea arauaren betekizunak betetzen diren edo ez. Saiakuntzaren emaitzak egokiak izanez gero, ez litzateke arazorik egongo. Bestela, beharrezko aldaketak txertatu beharko lirateke babes sisteman eta, ondoren, berriz ere saiakuntzak egin. Saiakuntza horiek oso garestiak direla aintzat hartuta, froga/akats bidezko prozedura ez da bideragarria ikuspuntu ekonomiko batetik. Ondorioz, proiektu honetan elementu finituen softwarean simulazioak egingo dira, babes sistemaren portaera zein den egiaztatzeko.

Kontuan hartu beharreko deformazio abiadura 10^{-3}-tik 10^{3} s^{-1}-ra bitartekoa da, UNE 135900-2:2008[94] arauan saiakuntzetarako ezarritako abiadurak barne. Efektu iragankorrak gero eta esanguratsuagoak direnez deformazio abiadura handitu ahala, oszilazio handiak ikus daitezke indar seinaleetan.

Saiakuntzak ez dira aldez aurretik baldintzatu, Mullins[95] efektua saihesteko. Hala ere, saiakuntza egitean ez zenez agertu barril itxurarik probetetan, gertakizun hori albo batera utz daiteke zehaztasuna galdu gabe.

Ondoren, material eredu bat proposatuko da eta bere parametroak emaitza esperimentalekin uztartuko dira. Jarraian, nahitaezkoa da saiakuntza prozedurak zehaztea materialaren portaera deskribatzeko. Kanpaina esperimentala sarritan garestia denez eta luze jotzen duenez, 6. kapituluan aurkeztuko den eredu analitiko/numeriko prediktiboa erabiltzea aukera egokia da kantitate hori kalkulatzeko.

Kapitulu hau era honetara dago antolatuta: lehenengo, probetak prestatuko dira kautxu birziklatuaren eta LLDPEaren proportzio desberdinetako 3.2. atalean. Deformazio abiadura handiko saiakuntzetarako metodologiak aurkeztuko dira 3.4**¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.**. atalean. Ondoren, saiakuntza makina ere deskribatuko da.

Kapitulua ixteko nahasketen emaitza esperimentalak eta iruzkin batzuk aurkeztuko dira 3.5. atalean.

3.2 PROBETEN PRESTATZEA

Pneumatiko erabilietako kautxu birziklatuarekin eta dentsitate txikiko polietileno linealarekin egindako nahasketa erabili da. Kautxuaren partikulen neurria 0,8 – 3 mm artekoa da, eta LLDPEa trinkotzeko erabili da, itsasgarri gisa. Nahasketa hori da deskribatu beharreko materiala. Horrez gain, TiO_2 ere erabili da (3-3 irudian) probetak errepideetako hesien kolore antzekoena izan dezan, hori baita itxaroten den aplikazio potentziala.

Kautxua itsasgarri batekin nahastu eta trinkotzen denean, amaierako produktuak energia xurgatzeko duen gaitasuna honako hauen araberakoa da: itsasgarriaren izaera, material bien proportzioak, nahasketak amaieran duen dentsitatea eta materialaren lodiera. Kautxua izanik nahasketaren osagai nagusia, zaila da zehaztea talken aurrean materialak izango duen erantzuna. Izan ere, ezinezkoa da trakziopean materiala frogatzea, baldintza horietan oso erraz puskatzen delako. Ondorioz, beharrezkoa da frogak konpresiopean egitea.

Gero, simulazioen emaitzak alderatu dira saiakuntza esperimentalean lortutakoekin. Saiakuntzaren emaitzen eta simulazioen analisitik abiatuta, ondorio batzuetara heldu nahi da.

Kontuan hartu da saiakuntzaren errepikakortasuna, baita materialaren dentsitateak eta lodierak talkaren energia xurgatzeko gaitasunean duen eragina ere. Halaber, teknika esperimentalak eta zenbakizko teknikak uztartzeko aukerak ere ebaluatu dira, material mota horien karakterizazio egokia lortzeko asmoz. Modu horretara, materialen eredu konstitutibo hobeak aukera daitezke.

Lehengaia ez denez homogeneoa, asmoa da emaitzak uztartzea Roswand IFW5 makinan dentsitate eta lodiera askotako xafletan egindako pisu erorketaren saiakuntzetan lortu diren emaitzekin. Konpresiozko emaitza esperimentalak Ansys-LS Dyna FE programarako datu gisa erabili dira, konpresio saiakuntza horiek simulatzeko.

Kautxu birziklatuaren eta LLDPEaren hiru proportzio fabrikatu dira:

3-1 taula. Kautxu birziklatuaren eta LLDPEaren proportzioak nahasketa desberdinetan

	Kautxu birziklatua	LLDPE	TiO_2 (proportzio konstantea)
90/10	87%	10%	3%
75/25	72%	25%	3%
60/40	57%	40%	3%

Ikerketa honetan, onartutzat jo da kautxuak deformazio abiadura txikienean duen portaera funtsean bere erantzun estatikoaren berbera dela. Emaitza esperimentalek egiaztatu dute onarpen edo suposizio horrek ez duela errore esanguratsurik eragiten.

Kautxu birziklatua txikitu beharra dago, dagoeneko bulkanizatuta baitago, 3-1 irudian erakusten den moduan.

3-1 irudia. Birrindutako kautxu birziklatua

Giro tenperaturan LLDPEa solidoa da, 3-2 irudian ikus daitekeenez, baina estrusio makinan sartzean, tenperatura altuetan likidotu egiten da. Makinatik ateratzean, solido bihurtzen da berriz ere, kautxu zatiekin itsatsiz.

3-2 irudia. LLDPEa estrusionatu aurretik.

3-3 irudia. TiO_2 koloragarri gisa

Hiru osagaiak 3-4 irudian erakusten den nahasgailuan sartu eta zenbait minutuz birarazten dira, ahalik eta nahasketa homogeneoena lortzeko.

3-4 irudia. Nahasgailua

Estrusio lehorra egin da, 160°C-tan.

Nahasketa hori estrusio makinan sartu da (3-5 irudian), eta bertan LLDPEa urtu eta kautxuarekin nahasi da, estrusio makinaren biraketen eta barneko tenperaturaren eraginez.

3-5 irudia. Estrusio makina

Lortutako nahasketa erraza da maneiatzen. Eskuekin hartu eta moldean gogortu edo trinkotu da.

3-6 irudia. Nahasketa

Probetan lortu nahi den dentsitatearen arabera, 3-6 irudiko nahasketa gehiago edo gutxiago estutu behar da. Behin moldea bete ondoren, 24 orduz utzi da giro tenperaturan probeta hoztu dadin. Denbora hori igaro ostean, probeta eginda dago, saiakuntzetarako prest.

3.3 HIRU NAHASTE DESBERDINEN SORKETA

3.3.1 Lehen kasua 90/10

Fabrikatu den nahasketa honela osatu da: %87 kautxua, %10 LLDPE eta %3 TiO_2. 28 zilindroko sorta erabili da; 60 mm-ko diametro nominala eta 70 mm-ko lodiera/altuera dute eta probeta "handiak" deritze. Lau taldetan banatu dira dentsitatearen arabera: 0,7, 0,8, 0,9 eta 1 g/cm^3 (aztertutako dentsitate tartea 0,68-1,03 g/cm^3 izan da). 3-7 irudian, probeta horietako bat ikus daiteke. Saiakuntzak MTS 819.10 makina serbo-hidrauliko batean egin dira, lau abiaduratan: abiadura bat (0,004 m/s) analisi kuasiestatikorako, 0,057 s^{-1}-ko deformazio abiadura eraginez, eta hiru abiadura (0,04 m/s, 0,4 m/s eta 4 m/s) analisi dinamikorako, 0,57, 5,7 eta 57 s^{-1}-ko deformazio abiadurak eraginez hurrenez hurren. Horrek ahalbidetzen du materialaren portaera zehaztea deformazio abiadura ertain-txikietan, ingeniaritzan hainbat aplikazio izango dituena, nahiz eta ez dituen biltzen gerta daitezkeen talka guztietarako deformazio abiadurak. Abiadura bakoitzean dentsitate bakoitzeko bi probeta frogatu dira, abiadura handienean izan ezik, hor probeta bakarra frogatu baita.

Bestalde, 28 zilindroko beste sorta bat erabili da; 30 mm-ko diametro nominala eta 40 mm-ko lodiera dute probetek eta probeta "txikiak" deritze. Sorta hori ere talde berdinetan banatu da dentsitatearen arabera, eta saiakuntzak egiteko makinaren abiadurak berberak izan dira, deformazio abiadura hauek eraginez: analisi kuasiestatikorako 0,1 s^{-1} eta analisi dinamikorako 1, 10 eta 100 s^{-1} hurrenez hurren.

Eskuratutako datu fitxategiak honela izendatuta daude: probeta handietan, fitxategiaren izena G-rekin hasten da, *G_speed_densityA* deritzo hain zuzen ere (edo B-rekin amaitzen da dentsitate bereko bi probeta badaude; eta abiadura m/s-tan dago); eta lagin txikietan, izena antzekoa da, baina *p* letraz hasten da.

Hurrengo adibideetan, 0,7 g/cm^3-ko dentsitateko probeta handiei dagozkien fitxategi batzuen izenak azaltzen dira:

G_0.004_0.73B: probeta handia (G) + 0,004 m/s-ko makina abiadura + 0,73 g/cm^3-ko dentsitatea + B lagina

G_0.4_0.72A: probeta handia (G) + 0,4 m/s-ko makina abiadura + 0,72 g/cm^3-ko dentsitatea + A lagina

G_4_0.73A: probeta handia (G) + 4 m/s-ko makina abiadura + 0,73 g/cm^3-ko dentsitatea + A lagina

Jarraian, bi taula txertatu dira –bata probeta handietarako eta bestea txikietarako–, dentsitate eta abiadura guztiekin:

3-2 taula. Frogatutako probeta handien zerrenda, 90/10 proportzioan

(0,7 eta 1 g/cm^3 bitarteko dentsitateak eta 0,004 eta 4 m/s bitarteko abiadurak)

PROBETA HANDIAK												
d=0.7 g/cm^3			d= 0.8 g/cm^3			d=0.9 g/cm^3			d=1 g/cm^3		
0.004	m/s	0.73B	0.004	m/s	0.82A 0.83A	0.004	m/s	0.92A 0.93A	0.004	m/s	1.01A 1.03A
0.04	m/s	0.72A 0.72B	0.04	m/s	0.83A 0.83B	0.04	m/s	0.92A 0.92B	0.04	m/s	1A 1.01A
0.4	m/s	0.72A 0.73A	0.4	m/s	0.82A 0.83A	0.4	m/s	0.93A 0.93B	0.4	m/s	1.02A 1.03A
4	m/s	0.73A	4	m/s	0.83A	4	m/s	0.93A	4	m/s	1.02A

3-3 taula. Frogatutako probeta txikien zerrenda, 90/10 proportzioan

(0,7 eta 1 g/cm^3 bitarteko dentsitateak eta 0,004 eta 4 m/s bitarteko abiadurak)

PROBETA TXIKIAK												
d=0.7 g/cm^3			d= 0.8 g/cm^3			d=0.9 g/cm^3			d=1 g/cm^3		
0.004	m/s	0.68A 0.71A	0.004	m/s	0.77A	0.004	m/s	0.89A 0.91A	0.004	m/s	0.97A 0.99A
0.04	m/s	0.72A 0.72B	0.04	m/s	0.78A 0.79A	0.04	m/s	0.90A 0.91A	0.04	m/s	1A 1.03A
0.4	m/s	0.72A 0.72B	0.4	m/s	0.82A 0.82B	0.4	m/s	0.90A 0.91A	0.4	m/s	1.01A 1.02A
			4	m/s	0.82A	4	m/s	0.92A	4	m/s	0.99A



3-7 irudia. Kautxu birziklatuaren lagina

3.3.2 Bigarren kasua 75/25

Fabrikatu den nahasketa honela osatu da: % 72 kautxua, % 25 LLDPE eta % 3 TiO_2. Probeta handietarako, 11 zilindroko sorta erabili da, 60 mm-ko diametro nominala eta 70 mm-ko lodiera dituena. Probeta txikietarako, aldiz, 16 zilindroko sorta erabili da, 30 mm-ko diametro nominala eta 40 mm-ko lodiera dituena. Lau taldetan banatu dira dentsitatearen arabera: 0,7, 0,8, 0,9 eta 1 g/cm^3. Makina serbo-hidrauliko berean egin dira saiakuntzak, lau

abiaduratan: abiadura bat (0,004 m/s) analisi kuasiestatikorako eta hiru abiadura (0,04 m/s, 0,4 m/s eta 4 m/s) analisi dinamikorako.

3-4 taula. Frogatutako probeta handien zerrenda, 75/25 proportzioan

PROBETA HANDIAK								
d=0.7 g/cm^3			d= 0.8 g/cm^3			d=0.9 g/cm^3		
0.004	m/s	0.76	0.004	m/s	0.86	0.004	m/s	0.96
0.04	m/s	0.77	0.04	m/s	0.87	0.04	m/s	0.95
0.4	m/s	0.75	0.4	m/s	0.86	0.4	m/s	0.96
4	m/s	0.77	4	m/s	0.85			

3-5 taula. Frogatutako probeta txikien zerrenda, 75/25 proportzioan.

PROBETA TXIKIAK											
d=0.7 g/cm^3			d= 0.8 g/cm^3			d=0.9 g/cm^3			d=1 g/cm^3		
0.004	m/s	0.76	0.004	m/s	0.87	0.004	m/s	0.94	0.004	m/s	1.05
0.04	m/s	0.74	0.04	m/s	0.86	0.04	m/s	0.93	0.04	m/s	1.03
0.4	m/s	0.77	0.4	m/s	0.86	0.4	m/s	0.97	0.4	m/s	1.07
4	m/s	0.73	4	m/s	0.83	4	m/s	0.93	4	m/s	1.07

3.3.3 Hirugarren kasua 60/40

Fabrikatu den nahasketa honela osatu da: % 57 kautxua, % 40 LLDPE eta % 3 TiO_2. Probeta txikietarako, 16 zilindroko sorta erabili da, 30 mm-ko diametro nominala eta 40 mm-ko lodiera dituena. Lau taldetan banatu dira dentsitatearen arabera: 0,7, 0,8, 0,9 eta 1 g/cm^3. Makina serbo-hidrauliko berean egin dira saiakuntzak, lau abiaduratan: abiadura bat (0,004 m/s) analisi kuasiestatikorako eta hiru abiadura (0,04 m/s, 0.4 m/s eta 4 m/s) analisi dinamikorako.

3-6 taula. Frogatutako probeta txikien zerrenda, 60/40 proportzioan

PROBETA TXIKIAK											
d=0.7 g g/cm^3			d= 0.8 g/cm^3			d=0.9 g/cm^3			d=1 g/cm^3		
0.004	m/s	0.74	0.004	m/s	0.84	0.004	m/s	0.96	0.004	m/s	1.04
0.04	m/s	0.76	0.04	m/s	0.84	0.04	m/s	0.95	0.04	m/s	1.04
0.4	m/s	0.74	0.4	m/s	0.86	0.4	m/s	0.95	0.4	m/s	1.05
4	m/s	0.75	4	m/s	0.84	4	m/s	0.93	4	m/s	1.04

3.4 DEFORMAZIO ABIADURA HANDIKO KONPRESIO SAIAKUNTZETARAKO METODOLOGIAK. SAIAKUNTZA MAKINAREN DESKRIPZIOA

3.4.1 Existitzen diren arauak

Lehenik eta behin, literaturan proposatu diren saiakuntza kuasiestatiko eta dinamiko batzuk aurkeztuko dira.

Konpresio kuasiestatikoko saiakuntzetarako arau ugari proposatzen dituzte honako hauek: ASTM (ASTM D571-95) ASTM D945, ISO (ISO 7743) eta UNE (UNE 53536:2001). Saiakuntzaren abiaduren balioa 12±0,3 mm/min-koa da UNEn eta ASTMn; aldiz, 10 mm/min-koa da ISOn. Saiakuntzarako probeta zilindrikoa da, 28,6±0,1 mm eta 29±0,5 mm bitarteko diametroa eta 12,5±0,5 mm-ko altuera dituena kasu guztietan.

Saiakuntza prozedura horien arteko desberdintasun nagusia da ISOn saiakuntza makinarekin kontaktuan dauden gainazalak lubrifikatuta egon behar dutela. Saiakuntzako piezak lubrifikatuta badaude, konpresioa homogeneoa da. Lubrikazio barik espezimenaren barril efektua eman liteke, eta honen ondorioz, barne tenstio altuak sor litezke, ez direnak natura uniaxialekoak.

Guztiek esaten dute probetek saiakuntzako tenperatura estandarretan egon behar luketela denbora tarte batez neurketa eta saiakuntza egin aurretik. ASTMn eta ISOn denbora tarte hori gutxienez 3 ordukoa da, eta UNEn soilik 30 minutukoa.

Saiakuntza dinamikoak: a) bibrazio behartu ez-erresonatzaileko saiakuntzak, b) bibrazio behartu erresonatzaileko saiakuntzak, c) bibrazio askeko metodoak, eta d) uhin hedapeneko metodoak.

3.4.2 Saiakuntzetan aplikaturiko metodologia

Deformazio abiadura handiko konpresio saiakuntzetan, makina-burua 4 abiaduratan (V) jarri da: 0,004, 0,04, 0,4 eta 4 m/s. Abiadura bakoitzean, dentsitate bakoitzeko bi probeta frogatu dira, abiadura handienean izan ezik, hor probeta bakarra frogatu baita. Horrela, 4 deformazio abiadura $\dot{\varepsilon}$ lortu dira probeten luzera bakoitzeko ($\dot{\varepsilon} = \frac{V}{L_o}$):

3-7 taula. Deformazio abiadurak probeten bi dimentsioetarako

	$\dot{\varepsilon}$ (s^{-1})			
Probeta handiak ($L_0 = 70mm$)	0.057	0.57	5.7	57
Probeta txikiak ($L_0 = 40mm$)	0.1	1	10	100

Saiakuntza prozeduran makinaren desplazamendua antzematen da: laginaren azken altuera 21,5 mm-tan ezartzen du, hasierako altuera 40,5 mm-koa denean (probeta txikiak, hau da, deformazioa $\varepsilon = \frac{\Delta L}{L} = \frac{40.5 - 21.5}{40.5} = 0.469$ eta azken altuera 38,4 mm-tan jartzen du 69,5 mm-ko hasierako altuera duten probetetan (probeta handiak; deformazioa $\varepsilon = \frac{\Delta L}{L} = \frac{69.5 - 38.4}{69.5} = 0.447$). Saiakuntza makinako segurtasun arrazoiak direla-eta, ezin izan da saiakuntza egin deformazio maila handiagoetan.

Beraz, aztertutako deformazio abiadurak aldatu egiten dira: probeta handietan 0.057 s^{-1} ($\dot{\varepsilon} = \frac{v}{L} = \frac{0.004\ m/s}{0.070\ m}$)-tik 57.14 s^{-1} ($\frac{4\ m/s}{0.070\ m}$)-ra eta probeta txikietan 0.1s^{-1} tik 100 s^{-1}-ra.

Ez da saiakuntzen aurre-baldintzatzerik egin saiakuntzaren aurretik. Hala ere, ez da agertu barril itxurarik probetetan saiakuntzak egin bitartean. Beraz, gertakari hori albo batera utz daiteke zehaztasuna galdu gabe.

Saiakuntzaren emaitzak neurtu eta datuak erregistratu egin dira datuak hartzeko sistema baten bidez. Saiakuntza gelako batez besteko tenperatura 25 ºC-koa izan da.

3.4.3 Saiakuntza makinaren deskripzioa

Talkekiko erresistentzia kasuek oro har eskatzen dute hiru motatako saiakuntza sistemak ezartzea deformazio abiaduraren arabera. Egoera kuasiestatikoetan eta 0,1/s-tik beherako deformazio abiaduretan frogak egiteko, ohiko karga bastidoreak erabili beharko lirateke, izan mekanikoak edo izan serbohidraulikoak. 0,1/s-tik gorako deformazio abiaduretan, makina serbohidraulikoak eta barra motako makinak erabili beharko lirateke. Mota

serbohidraulikoko sistemek normalean 0,1 eta 500/s bitarteko (kasu berezietan 1000/s-ra iritsiz) deformazio abiadurak hartzen dituzte. Bestalde, barra motako sistemek 100 eta 1000/s bitarteko eta hortik goragoko deformazio abiadurak hartzen dituzte. 3-8 irudian[96], modu eskematikoan dago azalduta hiru saiakuntza sistemetarako deformazio abiaduren tartea.



3-8 irudia. Froga mekanikoen alderdi dinamikoak

3-9 irudian, ikerketa honetan erabilitako MTS 819.10 abiadura handiko saiakuntza sistema serbohidraulikoaren argazkia dago. Makina horretan, saiakuntza estatikoak, dinamikoak eta abiadura handikoak (18 m/s-rainokoak) egin daitezke.

3-9 irudia. MTS abiadura handiko saiakuntza sistema, LEARTIKEReko saiakuntza mekanikoen laborategian

Ezinbestekoa da espezimenaren luzeran gertaturiko aldaketekin lotuta dagoen kargaren indarra neurtzea, saiakuntza uniaxialen bitartez material baten portaera mekanikoa

deskribatzeko. Ondorioz, hornituta dago, batetik, funtzionamenduan aplikatutako indarrak neurtzeko Kistler[97] markako 60 kN-ko karga zelula piezoelektriko batez eta, bestetik, aktuadorearen desplazamendua neurtzeko sentsore magnetostriktibo batez (Temposonics®), historikoki erabili den LVDT kontzeptua ordezkatuz.

Datuak hartzeko, National Instrument-eko PCI 6110 txartela erabili zen: 5.000.000 puntu/segunduko abiaduran erregistratzen ditu datuak. Saiakuntza esperimentaletako emaitzak hurrengo atalean azaltzen dira.

3.5 EMAITZAK ETA EZTABAIDA

3.5.1 90/10 proportzioa

Probetetan ez denez antzeman barril efekturik, ondoriozta daiteke deformazio eremua homegeneoa izan dela saiakuntzetan zehar.

3-10 irudian, 0,9 g/cm^3-ko dentsitateko probeta handiei dagozkien konpresio saiakuntzen emaitzak azaltzen dira modu grafikoan:



3-10 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 0,9 g/cm^3-ko dentsitaterako, deformazio abiadura desberdinetan (probeta HANDIAK, 90/10 proportzioa). Parentesi artean, benetako dentsitatea eta frogatutako probeta (A edo B) daude adierazita.

Irudiak erakusten du konpresiopean zein den kautxuaren portaera. Kurba bakoitza deformazio abiadura bati dagokio; hiru deformazio abiadura azaltzen dira (0,057, 0,57 eta 5,7 s^{-1}), eta kolore bereko kurbek deformazio abiadura berbera daukate. Deformazio (luzapen) jakin baterako, tentsioaren balioak askoz ere altuagoak dira deformazio abiadura handiagoen eraginpean, deformazio abiadura txikien eraginpean baino. Bestalde, kurben ez-linealtasuna areagotu egiten da deformazio abiadura handiagoetan, hau da, modulu elastikoa aldagarria da eta luzapenarekin areagotzen da, material hiperelastikoekin gertatu ohi den bezala. Efektu biskoelastiko ez-lineal esanguratsua antzeman daiteke kargaren historian; izan ere, tentsioa ez da linealki areagotzen deformazio abiadurarekin. Tentsio-luzapen kurba desberdinen kurbadura aldatzeak nabarmentzen du efektu hori. 0,7 g/cm^3, 0,8 g/cm^3 eta 1 g/cm^3-ko dentsitateei dagozkien konpresio saiakuntzek efektu hori erakusten dute, hurrenez hurren **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** irudian, **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** irudian eta **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** irudian azaltzen den bezala.



3-11 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 0,7 g/cm^3-ko dentsitaterako, hainbat deformazio abiaduratan (probeta HANDIAK, 90/10 proportzioa). Parentesi artean, benetako dentsitatea eta frogatutako probeta (A edo B) daude adierazita.



3-12 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 0,8 g/cm^3-ko dentsitaterako, hainbat deformazio abiaduratan (probeta HANDIAK, 90/10 proportzioa).



3-13 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 1 g/cm^3-ko dentsitaterako, hainbat deformazio abiaduratan (lagin HANDIAK, 90/10 proportzioa).

Jarraian, probeta txikiei dagozkien saiakuntzen emaitzak azaltzen dira:



3-14 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 0,7 g/cm^3-ko dentsitaterako, hainbat deformazio abiaduratan (lagin TXIKIAK, 90/10 proportzioa). Parentesi artean, benetako dentsitatea eta frogatutako lagina (A edo B) daude adierazita.



3-15 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 0,8 g/cm^3-ko dentsitaterako, hainbat deformazio abiaduratan (lagin TXIKIAK, 90/10 proportzioa). Parentesi artean, benetako dentsitatea eta frogatutako lagina (A edo B) daude adierazita.



3-16 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 0,9 g/cm^3-ko dentsitaterako, hainbat deformazio abiaduratan (lagin TXIKIAK, 90/10 proportzioa).



3-17 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 1 g/cm^3-ko dentsitaterako, hainbat deformazio abiaduratan (lagin TXIKIAK, 90/10 proportzioa).

3-11 iruditik3-17 irudira, 3-10 irudiarekin konparatuz, joera berdinak ikusi dira, hau da, materialen joera hiperelastikoa nabarmendu daiteke tentsio-luzapen erlazio ez linealean. Baita ere agertzen da kurben kurbaturetan desplazamendu bat, itxura biskoelastiko ez

lineala erakusten duena. Izan ere, tentsioa ez da linealki handitzen deformazio abiadurarekin. Hurrengo taulan aurreko emaitzak daude laburbilduta:

3-8 taula. Tentsio-luzapen kurbak probeta handientzat 0.7 g/cm^3, 0.8 g/cm^3, 0.9 g/cm^3 eta 1 g/cm^3 dentsitateentzat

PROBETA HANDIAK	
 (a)	 (b)
 (c)	 (d)

Ikus daitekeenez, 0,7 g/cm^3-ko dentsitateko (a) kasuan izan ezik, deformazio abiadurak modu progresiboan aldatzen dira. Kasu guztietan (dentsitate guztietan) azaltzen da portaera hiper-biskoelastikoa.

3-9 taula. Tentsio-luzapen kurbak probeta txikientzat eta 0.7 g/cm^3, 0.8 g/cm^3, 0.9 g/cm^3 eta 1 g/cm^3 dentsitateentzat (90/10 proportzioa)

PROBETA TXIKIAK	
 (a)	 (b)
 (c)	 (d)

Ondoren, 3-18 irudiak probeta handi eta txikien tentsio-luzapen diagramak erakusten ditu deformazio abiadura desberdinentzat, 1 g/cm^3 dentsitatearen kasurako. Ikus daitekeenez, deformazio abiadura berdinarentzat, hau da, kolore berdindun kurbentzat, luzapenaren balio batentzat tentsioa oso antzerakoa da, itxaroten zen moduan. Hortaz, tamainaren eragina ez dela horren garrantzitsua ondoriozta daiteke.



3-18 irudia. Lagin handien eta txikien tentsio-luzapen kurbak 1 g/cm^3-ko dentsitaterako, hainbat deformazio abiaduratan (90/10 proportzioa).

Material honen aplikazioan probeta handiak nahiago dira aplikazio potentziala kontsideratzen bada, kautxu birziklatu gehiago daukatelako eta hesien estalduren antz handiagoa dutelako.

Jarraian ageri den grafikoa ere interesgarria da, deformazio abiadura bera duten dentsitateak alderatzen baitira.



3-19 irudia. Tentsio-luzapen kurbak 0,7, 0,8, 0,9 eta 1 g/cm^3-ko dentsitateetarako, 0,57 s^{-1}-ko deformazio abiaduran (90/10 proportzioa)

3-19 irudian ikus daitekenez, dentsitate handiagoko materialak eremu zabalagoa du kurba azpian. Horrenbestez, interesgarria litzateke dentsitate handiagoko material bat erabiltzea errepideetako hesiak estaltzeko, talkan energia gehiago xurga dezan.

3.5.2 75/25 proportzioa

0.7 g/cm^3, 0.8 g/cm^3 eta 0.9 g/cm^3 dentsitateei dagozkien konpresiozko saiakuntzak ondoko tauletan laburbiltzen dira, lehendabizi probeta handientzat eta ostean probeta txikientzat; 1 g/cm^3 dentsitateari dagozkion emaitzak, probeta txikien kasurako, bigarren taula horretan aurki daitezke.

3-10 taula. Tentsio-luzapen kurbak probeta handientzat eta 0.7 , 0.8 eta 0.9 g/cm^3 dentsitateentzat (75/25 proportzioa)

PROBETA HANDIAK	
 (a)	 (b)
 (c)	
Deformazio abiadurak progresiboki aldatuz doazela ikus daiteke. Kasu guztietan (dentsitate guztiak) portaera hiper-biskoelastikoa erakusten da.	

3-11 taula. Tentsio-luzapen kurbak probeta txikientzat eta 0.7, 0.8, 0.9 eta 1 g/cm^3 dentsitateentzat (75/25 proportzioa)

PROBETA TXIKIAK	
 (a)	 (b)
 (c)	 (d)

Ondoren, bi irudik 0.9 g/cm^3 dentsitateko probetak konparatzen dituzte, 3-20 irudiak 75/25 eta 90/10 proportzioak, probeta handientzat, and 3-21 irudiak 60/40, 75/25 eta 90/10 proportzioak, probeta txikientzat, hurrenez-hurren.



3-20 irudia. Tentsio-luzapen kurben konparaketa probeta HANDIENTZAT eta 0.9 g/cm^3 dentsitateentzat 75/25 eta 90/10 proportziodun nahasteentzat



3-21 irudia. Tentsio-luzapen kurben konparaketa probeta TXIKIENTZAT eta 0.9 g/cm^3 dentsitateentzat, 60/40, 75/25 eta 90/10 proportziodun nahasteentzat

Ikus daitekeenez, zurruntasuna handituz doa PEren proportzioa nahastean handituz doan heinean; ondorioz, 60/40 proportzioa da zurruntasun handiena erakusten duena. Tentsioa 0.5 baliodun luzapen baten kasuan deformazio abiadura berdinarentzat, gutxi gora-behera 4 aldiz altuagoa da 60/40 proportziodun nahastearentzat 90/10 proportziodunarekiko, 3-21

irudian erakusten denez. Energia absorbatzeko gaitasuna nahastearen PE proportzioarekin batera handitzen da. Hala ere, konpromezuko soluzioa kontsideratu da, zeinetan ahalik eta kautxu kopuru handiena birziklatzen den, nahastearen abantailak modu nabarian galdu gabe; hortaz, 90/10 nahastea aukeratu da errepideetako hesietan estaldura moduan erabiltzeko.

3.5.3 60/40 proportzioa

0.7 g/cm^3, 0.8 g/cm^3, 0.9 g/cm^3 eta 1 g/cm^3 dentsitateei eta probeta txikiak izanik, konpresiozko saiakuntzen emaitzak ondoko taulan erakusten dira (ikusi Eranskina xehetasun gehiagorako):

3-12 taula. Tentsio-luzapen kurbak 0.7 g/cm^3, 0.8 g/cm^3, 0.9 g/cm^3 eta 1 g/cm^3 dentsitateentzat eta probeta txikiak (60/40 proportzioa)

PROBETA TXIKIAK	
 (a)	 (b)
 (c)	 (d)

4.
EMAITZAK FILTRATZEKO METODOA

4.1 PROBLEMAREN DESKRIBAPENA

"System ringing" edo "erresonantzia-sistema" makina serbo-hidraulikoen bidez egiten diren abiadura altuko materialen saiakuntza dinamikoetan gehien eragiten duen faktoreetako bat da. Bitarteko abiaduretan burututako saiakuntzek, deformazio abiaduren 1 s^{-1}–etik 100 s^{-1}–rainoko tartean, zenbait zailtasun esperimental aurkezten dituzte[98]. Normalean, tarte horretan mugitzen den deformazio abiaduretan egiten diren saiakuntza esperimentalak abiadura handiko makina serbo-higraulikoetan egiten dira[13]. 10-60 s^{-1} bitarteko eremuan agertzen diren bibrazioak kritikoak izaten dira, lortzen diren tentsio-deformazioaren erantzunak hondatzen baitituzte. Arazo hau mota honetako saiakuntzetan materialen karakterizazio egoki bat egiteko oztopo nagusietako bat da. Bibrazio hauek, "system ringing" moduan ezagutzen direnak, saiakuntza makinaren modu nagusien eszitazioek sortuak dira eta frekuentzia natural batean ala gehiagotan oszilazioak eragiten dituzte[14], neurtutako materialaren erantzuna hondatuz (ondulazio bereizgarriak eraginez materialen kurbetan, beharrezko emaitzak zorrozki distortsionatuz).

"System ringing" honen efektu negatiboei heltzeko, neurtutako materialaren kurbei behe-paseko iragazkien teknika numerikoak aplikatu izan zaizkie nagusiki. Hala ere, praktika estandar hau kontu handiz aplikatu behar da, iragazteak zuzendutako seinaleak distortsionatzeko joera du eta[99]. Hainbat ikertzailek konfirmatu izan dute adierazpen hau beraien saiakuntzen bitartez. Dutton[100]-ek ondorioztatu zuenez, ez dago iragazkirik kurbak

leundu ditzakeenik datuak kaltetu barik, eta Rehrmann eta bestek[101] efektu negatiboak filtratutako seinaleen atzerapen bat eta fase aldaketa batean datzatela, eta baita informazio galera kargaren igoeran saiakuntzaren hasieran. Zhu eta bestek[14] iragazkiaren mozketa frekuentziaren identifikazio egokiaren garrantzia nabarmendu zuten eta, ildo berdinean, Larour[102]-ek erakutsi zuen zuzendutako seinale desberdinak aukeraturiko mozketa frekuentziaren arabera lortuak direla erakutsi zuen, emaitza finala aukeraketa subjetibo honen menpekoa dela azpimarratuz. Xia eta bestek[12] nabarmendu zuten iragazte prozesuaren zehaztasuna aukeraturiko iragazte algoritmoarekiko oso menpekoa dela, eta Bardenheier eta bestek[103] aplikaturiko iragazte algoritmoaren arabera leundutako soluzio desberdinak lortu zituzten.

Aipatutako mugak direla eta, gomendatu izan da oszilazioak beste medio batzuen bidez gutxitzea, iragazte algoritmoak esperimental datuei aplikatu aurretik[104]. Zuzenketa honek bibrazio hauek sortarazten dituzten faktoreen aurretiazko ezagutza izatera behartzen du, eta helburu honekin, beharrezkoa da makina serbo-hidraulikoaren erantzun dinamikoa modelatzea. Xiao[98] izan zen saiakuntza dinamikoetan "system ringing" hau kuantitatiboki neurtzeko eredu matematiko bat erabili zuen lehenengo autorea. Oinarrizko askatasun gradu bakarreko eredua erabili zuen (SDOF) bibrazioen anplitudeak, frekuentziak eta erortze-abiadurak iragartzeko, eta karga abiaduraren eta frekuentzia naturalaren eraginak deskribatu zituen "ringing"aren magnitudean. SDOF hau modu zabalduan erabilia izan da ondorengo laneatan erreferentziatzat hartuaz. Hala ere, ikertzaile hauetako batzuek emaitza esperimental eta analitikoen arteko desberdintasunak eman dituzte aditzera, erroreak bibrazio erantzun hau frekuentzia anitzek menperatua dagoela esleituz[14,105,106]. Hortaz, saiakuntza sistema dinamikoa Xiaok aurkeztu zuen SDOFa baino konplexuagoa da. Zhu eta bestek[14] ikerketa garatuagoa aurkeztu zuten, modu eta frekuentzia nagusiak analisi modal baten bidez antzemanez eta modu hauen garrantzia determinatuz bibrazio-erantzunean. Berriz ere, modu nagusien efektuak SDOF ereduen bidez aztertu ziren, erresonantzia-frekuentzia bakoitza bakarka kontuan hartuz. Aitortu zuten SDOF ereduak ezin dituela bibrazio-ezaugarri horiek bikoiztu eta askatasun gradu anitzeko ereduak (MDOF) bibrazio hauen estimazio hobea sortuko lukeela ondorioztatu zuten.

Azken ideia honi lotuta, lan honek abiadura altuko makina serbo-hidrauliko baten eredu dinamiko xehea aurkezten du, zeinetan hainbat bibrazio modu kontsideratu izan diren. Eredua parametro modaletan oinarritzen da, hots, moduak, frekuentzia naturalak eta moteltze faktoreak; makinarengan egindako analisi modal esperimental (EMA) baten bidez

lortuak, eta bibrazio-erantzuna simulatzeko gai dena. Denboraren eremuan simulazioak egin dira, makinaren sarrera-irteera portaera iragartzeko kautxua saiatu denean; sarrera bezala eragingailuaren bapateko kolpea espezimenaren kontra hartu da eta irteera bezala karga-zelula piezoelektrikoaren posizioko erantzuna hartuta. Simulaturiko indarren seinaleen frekuentzia edukiak antzeman ditu prozesuan parte hartzen duten frekuentzia garrantzitsuak; eta esperimentalki kautxuaren saiakuntzetan neurtutako indarren seinaleekin konparaketak iragarpen analitikoen efikazia frogatu du. Balioztatze azterketa honen ondoren, eredua hurrengo pauso batean erabili da, non simulaturiko indarren ondulazioak esperimentalki neurtutako karga-zelulako indarren seinaleei kenduz. Indarren seinale erresultanteak jatorrizko neurtutakoak baino askoz leunagoak dira eta zuzenketa prozedua azken iragazte pausoarekin burutzen da. Bi faktorek bermatzen dute azken iragazte pauso honen aplikazioa. Batetik, bibrazioen frekuentzia edukiaren ezagutzak mozketa frekuentziaren identifikazio zehatza baimentzen du, zein iragazki egoki baten diseinurako baldintza den[14]. Bestetik, iragazi beharreko datuen ondulazio txikiek posible egiten dute azken kurbak distortsio arbuiagarriarekin lortzea. Hortaz, datuak zuzendu ondoren, azken materialen kurbak lortzen dira, abiadura altuko indarra vs. denbora erreala adierazten dutena.

4.1.1 Abiadura altuko kautxuaren karakterizazioa

Erabilitako pneumatikoetako kautxu birziklatuaren karakterizaziorako egindako konpresiozko saiakuntzen artean, 4 m/s-ko eragingailuaren abiadura daukaten haiek, hau da, abiadura altuenetakoak, "ringing" erako bibrazioak sortarazten dituzte, karga-zelulen neurketak kutsatuz. 4-1 irudiak karga-zelularen konpresiozko indarra vs. denbora neurketa eta sentsore magnetostriktiboaren desplazamendua vs. denbora neurketa erakusten ditu, 4 m/s-ko abiaduran egindako saiakuntza bati dagozkionak, 60/40 proportzioko nahastearenak, espezimenaren birziklatutako kautxua %57a izanik, LLDPEa %40a eta TiO_2–a %3a.



4-1 irudia. Konpresiozko indarra vs. denbora eta desplazamendua vs. denboraren neurketak.

Indarra vs. Denbora kurba hori ez da egokia materialaren karakterizaziorako, karga prozesuan nahi ez diren ondulazioak agertzen direlako (gutxi gora-behera 0.1046 s eta 0.112 s bitartean 4-1 irudian ikusten den saiakuntzan). Bibrazio hauen jatorriari eta naturari buruzko ezagutza lortzeko, bi pausoko prozedura jarraitu da. Lehenengo, frekuentzia nagusiaren hasierako estimazio bat egin izan da bi tontorren artean igarotako denboraren alderantzizkoa kalkulatuz (ikusi 4-1 irudia): $f_{estim} \approx 1/0.00044 = 2272.7\ \text{Hz}$. Bigarrenez, kalkulu zehatzago bat garatu izan da Fourierren Transformatu Azkarraren (FFT) bitartez indarraren seinalearen frekuentzia edukia ateraz. Emaitza optimoak lortzeko, transformatu honek sarrera bezala batazbesteko balio modura zeroa duen seinalea behar du, nahi ez diren frekuentziaren osagai baxuak ekiditzeko, zeinek geroago agertzen den 4-2 irudiko frekuentzia edukiaren itxura txarragotuko luketeenak. Beraz, goi-paseko iragazkia aplikatu da. Mozketa frekuentzia modura 1000 Hz hartu da, aurreko pausoan estimaturiko frekuentzia gordez. Etapa honetan iragazte algoritmoak sartzen duen distortsioa ez da garrantzitsua helburua ez delako seinale zuzendu bat lortzea, baizik eta beharrezkoa ez den informazioa kentzea; iragazkiak hau modu egokian egiten du. 4-2 irudiak FFT grafikoa aurkezten du, non frekuentzia espezifiko batetan kontribuzio altua nabarmentzen den, kontribuzio txikiagoa agertuz frekuentzia baxuago bateaan. Gertuagoko begirada batek frekuentzia nagusia 2320 Hz ingurukoa dela erakusten du, aurreko estimazioarekin bat etorriaz. Bigarren frekuentzia 1920 Hz ingurukoa da.



4-2 irudia. Neurtutako indarraren seinalearen FFTa.

4.1.2 Analisi Modal Esperimentala (EMA)

Saiakuntza sistemaren ezaugarri dinamikoak determinatzeko eta 4-2 irudian ikus daitekeen portaera iragartzen duen eredu bat sortzeko helburuarekin, EMA bat egin da 4-3 irudian erakusten den geometrian oinarrituz. Mailu instrumentatu bat erabili da eszitatzaile moduan, bi lokalizazio eta norabide desberdinetan ("Excitation" moduan adierazita 4-3 irudian), modu desberdinak era eraginkorrean eszitatzeko ideiarekin. Sarrera bakoitzarentzat, irudi berean erakusten diren 28 puntuetan erantzunak neurtu dira. Helburu honekin azelerometro triaxialak erabili dira. Neurketen frekuentzia eremua 0 Hz eta 4000 Hz bitartean ezarri da, 4-2 irudiarekin bat etorriz, eszitatutako frekuentzia nagusiak modu zabalean batuz. Beraz, bi azelerazio/indar frekuentziako erantzuneko funtzio (FRF) sorta jaso dira, 84 askatasun graduri dagozkienak. FRF hauetatik, parametro modalen sistema atera da erreferentzia anitzeko minimo karratuen frekuentzia estimatzaile konplexu bat erabiliz. 19 modu lortu dira interesatzen den frekuentzia eremuan, dagozkien frekuentzia naturalekin eta moteltze faktoreekin batera.



4-3 Irudia. EMAren geometria.

4.2 MAKINAREN EREDU DINAMIKOA

4-3 irudian erakusten den sistemaren mugimenduaren ekuazio orokorra kontsideratuz, zeinen portaera dinamikoa bigarren ordenako ekuazio diferentzial sorta baten bidez lor daitekeen[107]:

$$\boldsymbol{M}\ddot{z}(t)+\boldsymbol{C}\dot{z}(t)+\boldsymbol{K}z(t)=\boldsymbol{L}_u f(t) \tag{4.1}$$

Non:

- **M**, **C** eta **K** masa, moteltze eta zurruntasun matrizeak diren, hurrenez hurren.
- *z(t)* sistemako askatasun graduen desplazamendu bektorea den eta $\dot{z}(t)$ eta $\ddot{z}(t)$ bere denborarekiko deribatuak diren.
- $f(t)$ bektoreak egituran eragiten duten indarrak definitzen dituen eta $\mathbf{L_u}$ beraien eragin-matrizea den, sarrerako indarrek egituran nola eragiten duten adierazten duena.

Energiaren barreiadurarentzat adierazpen matematikoa formulatzea oso zaila da, barreiadura hau faktore askok eragiten bait dute, hara nola barne marruskadura histeretikoa, marruskadura lehor eta biskosoak, moteltze elementuak, etab. Tradizionalki eredu sinplifikatuak erabili izan dira; lan honetan eredurik zabalduenetako bat

kontsideratuko da, moteltze biskosoa (indar barreiatuak abiadurarekiko proportzionalak dira).

(4.1) ekuazioa koordenatu fisikoetan deskribatuta dago eta 4.1.2 ataleko EMAko emaitzek koordenatu modaletan deskribatutako formulazioa behar dute. Aldagai aldaketa bat egiten da ondokoari jarraituz:

$$z(t) = \Phi\, q(t) \tag{4.2}$$

Non $q(t)$ amplitude modalen bektorea den (84×1 dimentsioduna) eta $\mathbf{\Phi}$ matrizeak bere zutabeetan masa normalizatua duten moduen bektoreak ditu (84×19 dimentsioduna). (4.1) ekuazioan ordezkatuz, ezkerretik $\mathbf{\Phi^T}$ biderkatuz eta ortogonaltasun erlazioak erabiliz[108], zera lortzen da:

$$\ddot{q}(t) + 2\xi\Omega\dot{q}(t) + \Omega^2 q(t) = \Phi^{\mathrm{T}}\, \mathrm{L_u}\ f(t) \tag{4.3}$$

$\dot{q}(t)$ eta $\ddot{q}(t)$ $q(t)$ -ren deribatuak dira denborarekiko eta $f(t)$-k egituran eragiten duten indarrak definitzen ditu. $\mathbf{L_u}$ indar hauen eragin-matrizea da, sarrerako indarrek egituran nola eragiten duten adierazten duena. $\mathbf{\Omega}$ eta ξ matrize diagonalak dira, frekuentzia naturalak eta moteltze faktoreak dituztenak beren baitan, hurrenez hurren (19×19 dimentsiodunak).

M eta **K** matrizeek ortogonaltasun baldintzak betetzen dituzte, jarraian azalduko direnak.

Sistema kontserbakor baten erantzun askea kontuan hartuz, hots, moteltze barik (sistema dinamiko baten estudioaren abiapuntu gisa):

$$\boldsymbol{M}\ddot{z}(t) + \boldsymbol{K}z(t) = 0 \tag{4.4}$$

Ekuazio hau egituraren frekuentzia naturalak eta bibrazio moduak lortzeko erabil daiteke; sistema linealen kasuan, makinaren dinamika parametro hauen bidez guztiz definituta dago. Ekuazio honen soluzioak ondoko itxura du:

$$z(t) = \psi_i e^{jw_i t} \tag{4.5}$$

w_i egituraren i. frekuentzia naturala da eta ψ_i beroni lotutako bibrazio modua.

(4.5) ekuazioa (4.4) ekuazioaren barruan ordezkatuz, balio eta bektore propioen problema bat lortzen da:

$$\begin{aligned} &\left(\boldsymbol{K}-\lambda_i \boldsymbol{M}\right)\psi_i = 0 \\ &\lambda_i = w_i^2 \end{aligned} \tag{4.6}$$

M eta **K** matrizeak simetrikoak dira, **M** positibo definitua da (bere balio propio guztiak dira positiboak) eta **K** positibo semi-definitua (bere balio propio guztiak dira ez negatiboak). Hau kontuan hartuz, balio propio bakoitza aurreko ekuazioan erreala da eta ez negatiboa. Ekuazio honek bibrazio modua definitzen duenez baina ez bere anplitudea, berau eskalatzea posible da.

Frekuentzia naturalen eta bibrazio moduen kopurua egituraren askatasun graduen berdina da, N. Moteltze gabeko sistemaren soluzio osoa normalean NxN matrize bik emana dator:

$$\boldsymbol{\Omega}^2 = \begin{bmatrix} w_1^2 & 0 & \dots & 0 \\ 0 & w_2^2 & \dots & 0 \\ \vdots & \vdots & \ddots & \vdots \\ 0 & 0 & \dots & w_N^2 \end{bmatrix} \tag{4.7}$$

$$\boldsymbol{\psi} = [\psi_1, \psi_2, \dots, \psi_N] \tag{4.8}$$

Frekuentzia natural hauek sistemak bibratzeko joera duen frekuentziak adierazten dituzte eta bibrazio moduek, era berean masa eta zurruntasun matrizeak ortogonalizatzen dituen koordenatuen transformazioa definitzen duen propietate bat dute:

$$\psi_j^T \boldsymbol{K} \psi_i = 0 \tag{4.9}$$

$$\psi_j^T \boldsymbol{M} \psi_i = 0 \tag{4.10}$$

Non ψ_j eta ψ_i bibrazio modu desberdin bi diren. Ortogonaltasun baldintza hauek notazio matrizialean adieraz daitezke, ondoko eran:

$$\psi^T \boldsymbol{K} \psi = k_r \tag{4.11}$$

$$\psi^T \boldsymbol{M} \psi = m_r \tag{4.12}$$

k_r zurruntasun modalaren matrize diagonala eta m_r masa modalaren matrize diagonala dira.

Matrize bi hauen arteko erlazioa hurrengoa da:

$$k_r = \Omega^2 m_r \tag{4.13}$$

ψ matrizea eskala faktore arbitrario baten menpe dago, beraz k_r eta m_r ez dira bakarrak. Ohikoa izaten da eskala edo normalizazio moduan masa modal unitarioa erabiltzea. Kasu honetan, bibrazio moduen matrizea ϕ moduan idazten da eta ondoko propietateak ditu:

$$\phi^T \boldsymbol{K} \phi = \boldsymbol{\Omega}^2 \tag{4.14}$$

$$\phi^T \boldsymbol{M} \phi = \boldsymbol{I} \tag{4.15}$$

Non **I** matrize unitarioa den.

(4.2) ekuazioa (4.1)-en barruan sartuz:

$$\boldsymbol{M}\phi\{\ddot{q}(t)\} + \boldsymbol{C}\phi\{\dot{q}(t)\} + \boldsymbol{K}\phi q(t) = \boldsymbol{L_u} f(t) \tag{4.16}$$

(4.16) ekuazioa ϕ^T terminoaz aurre-biderkatuz eta kontuan izanik ortogonaltasun baldintza hauek:

$$\boldsymbol{I}\ddot{q}(t) + \phi^T \boldsymbol{C}\phi\dot{q}(t) + \boldsymbol{\Omega}^2 q(t) = \phi^T \boldsymbol{L_u} f(t) \tag{4.17}$$

Kontsideratu behar da **C** matrizearen kalkulatzeko era, prozedura analitikoa neketsua da eta. Normalean prozedura sinplifikatuak erabiltzen dira, hara nola moteltze proportzionala edo Rayleigh-en moteltzea eta moteltze modala. Hemen, bigarren hau erabiltzen da analisi modaletik lortzeko hobeto moldatuta baitago. Modu bakoitzaren moteltzearen magnitudea moteltze kritikoaren portzentai baten modura adierazten da; lortutako emaitzak egokiak dira moduen moteltzea moteltze kritikoa baino gutxiago bada.

Modu honetan, modu bakoitzarentzat moteltze modala ξ_i moteltze kritikoaren frakzio baten modura kontsideratu da eta honela definitu da:

$$\phi^T \boldsymbol{C} \phi = \boldsymbol{diag}(2 \cdot \boldsymbol{\xi_i} \cdot \boldsymbol{w_i}) \tag{4.18}$$

Eta (4.17) ekuazioa, (4.3) ekuazioaren moduko N ekuazio desakoplatutan bihurtu da; ekuazio bakoitzak bibrazio modu baten portaera deskribatzen du.

Non:

$$\boldsymbol{\xi} = \begin{bmatrix} \xi_1 & 0 & \dots & 0 \\ 0 & \xi_2 & \dots & 0 \\ \vdots & \vdots & \ddots & \vdots \\ 0 & 0 & \dots & \xi_N \end{bmatrix} \tag{4.19}$$

Modu bakoitzarentzat ξ_i balioak esperimentalki lortu dira.

(4.3) ekuazioa guztyiz definitu da parametro modaletan, EMAtik atera direnak 4.1.2. atalean.

Egoera-espazio errepresentazioak sistemaren erantzuna sarrerako indarren aurrean aztertzeko modu egoki bat ematen du; honela, errepresentazio honetan sistema lineal aldaezina denboran deskribatzen da, lehenengo ordenako ekuazio diferentzial sorta baten moduan. (4.20) eta (4.21) ekuazioek garapen honen forma orokorra deskribatzen dute:

$$\dot{x}(t) = Ax(t) + Bu(t) \tag{4.20}$$

$$y(t) = Cx(t) + Du(t) \tag{4.21}$$

(4.20) ekuazioa egoera ekuazioa da: sistemaren barne dinamika deskribatzen du, eta (4.21) ekuazioa irteera ekuazioa da.

Non:

- **A**, **B**, **C** eta **D** egoera-espazioko matrize errealak diren, denborarekiko independenteak, sistemaren dinamika adieraziz,

- $u(t)$ sistemaren sarrerako bektorea den ($f(t)$-ren berdina),

- $x(t)$ egoera bektorea den eta $\dot{x}(t)$ bere deribatua, eta

- $y(t)$ sistemaren irteerako bektorea den.

A, **B**, **C** eta **D** matrizeak egoera bektorearen aukeraketaren menpeko dira; hortaz, egoera-espazioaren errepresentazio desberdinak dira posibleak sistemaren sarrera eta irteerentzat. Egoera-espazioaren matrizeak eremu modalean definitzeko, egoera bektorearen definizo egoki bat ondokoa da[109]:

$$x(t) = \begin{bmatrix} \boldsymbol{\Omega} q(t) \\ \dot{q}(t) \end{bmatrix} \tag{4.22}$$

(4.3) ekuazioan ordezkatuz, **A** eta **B** matrizeak izango dira:

$$\mathbf{A}=\begin{bmatrix}\mathbf{0} & \mathbf{\Omega}\\ -\mathbf{\Omega} & -2\boldsymbol{\xi}\mathbf{\Omega}\end{bmatrix} \qquad \mathbf{B}=\begin{bmatrix}\mathbf{0}\\ \mathbf{\Phi}^{\mathrm{T}}\mathbf{L}_{\mathbf{u}}\end{bmatrix} \tag{4.23}$$

C eta **D** matrizeak behar diren irteeren menpekoak izango dira, beraz, eredua aukeraturiko askatasun graduen desplazamenduak, abiadurak eta azelerazioak simulatzeko erabil daiteke.

Egoera-espazioaren helburua irteerako askatasun gradu desberdinen desplazamenduak, abiadurak eta azelerazioak lortzea da. Nahi den terminoaren arabera, irteerako ekuazioa honela irakur daiteke:

Desplazamenduak:

Desplazamenduen kasuan, irteerako ekuazioa ondokoa da: $\{y(t)\}=\left[L_y\right]^T\{z(t)\}$

$$\{y(t)\}=\left[L_y\right]^T[\phi]\{\eta(t)\}=[\phi]_y[\Omega]^{-1}\{z(t)\}=Cz+Df \tag{4.24}$$

Abiadurak:

Abiaduren kasuan, irteerako ekuazioa ondokoa da: $\{y(t)\}=\left[L_y\right]^T\{\dot{z}(t)\}$

Azelerazioak:

Azelerazioen kasuan, irteerako ekuazioa ondokoa da: $\{y(t)\}=\left[L_y\right]^T\{\ddot{z}(t)\}$

$$y=\left(-[\phi]_y[\Omega]-2[\phi]_y[\xi][\Omega]\right)z+[\phi]_y\mu^{-1}[\phi]_u^{\ T}\{f(t)\}=Cz+Df \tag{4.25}$$

Behin eredua garatuta, garrantzitsua da bere zehaztasuna egiaztatzea. Hurrengo atalak lan honen markoan egindako egiaztapenak deskribatzen ditu.

4.3 EREDUAREN EGIAZTATZEA

Eredu matematikoak balioztatzeko modu arrunt bat simulaturiko eta neurturiko FRFak konparatzean datza. 4.3.1 azpiatalak egiaztatze hau deskribatzen du. Gainera, denboraren eremuan kautxuaren abiadura altuko konpresiozko saiakuntza bat simulatu da bibrazioen

frekuentzia edukia aurresateko, emaitza esperimentalki lortutakoarekin konparatuz. Hau 4.3.2. azpiatalean laburbiltzen da.

4.3.1 FRFen konparaketa

FRFen azelerantzia esperimentala, 4.1.2. azpiataleko analisi modaletik lor daitekeena, egoera-espazio ereduaren bitartez erreproduzitu daiteke. Kalkulu hauek azelerazioak lortzeko **C** eta **D** matrizeen definizio egokia behar dute, ondoko eran[109]:

$$\mathbf{C} = \left[\mathbf{L}_y^T \boldsymbol{\Phi}\boldsymbol{\Omega} \quad -2\mathbf{L}_y^T \boldsymbol{\Phi}\boldsymbol{\xi}\boldsymbol{\Omega}\right] \qquad \mathbf{D} = \mathbf{L}_y^T \boldsymbol{\Phi}\boldsymbol{\Phi}^T \mathbf{L}_u \tag{4.26}$$

$\mathbf{L}_y$ beharrezko irteeren eragin-matrizea da.

4-4 irudiak irteerako j askatasun graduaren eta sarrerako i askatasun graduaren arteko FRFak konparatzen ditu. Irteerako askatasun gradua aukeratu izan da, goiko muturraren eta espezimenaren arteko kolpea ematen den posizioan eta norabidean, makinaren indarraren bidean zehar transmititzen diren moduak detektatzeko ideiarekin.



4-4 irudia. Irteerako j eta sarrerako i askatasun graduen arteko azelerantzia esperimental eta simulatuen FRFak

Irudi honek erakusten duenez, egoera-espazio eredu modalak sistemaren portaera dinamikoa modu egokian islatzen du. Interesgarria da anplituderik altueneko tontorra 2320 Hz ingurutan ematen dela, 4.1.2. azpiatalean detektaturiko frekuentzia bera izanik.

4.3.2 Denbora eremuko simulazioak

Konpresiozko kolpea kautxuzko espezimenean bapatean aplikaturiko bulkada-indar batekin konparagarria da. Idealizazio matematiko honek, aurreko ikerkuntza lanetan modu zabalean hartua[14,98], makinaren erantzunaren denborazko eboluzioa simulatzeko modu egokia ematen du, bulkada-indarrak modu errazean programa daitezkeelarik.

Matlab programaren Simulink plataforma erabili da simulazio hauek gauzatzeko. Egoera-espazio ereduan, bulkada-indarra 4-5 irudian erakutsitako bi "input" askatasun graduetan eragiten duelarik simulatu da $\mathbf{L_u}$ bektorearen definizio egoki baten bidez. Sisteman bi indar sartzen diren arren, magnitude berekoak dira, pistoian eta goiko buruan kolpean zehar auto-orekatzaileak diren indarrak adierazten dituztelako, eta ondorioz, $\mathbf{L_u}$–ren zutabe bakarra da beharrezkoa.



4-5 irudia. Sarrerako askatasun graduak denboraren eremuko simulazioetarako.

Bulkada-indar batekin lan egiten demean bere magnitudearen estimazio egokia da. Hurrengo atalak lan honetan jarraitutako estrategia eztabaidatzen da bulkada-indar horren balioa lortzeko.

4.3.2.1. Bulkada-indarraren magnitudearen estimazioa

Bulkada bat indarraren denboran zeharreko integral moduan definitzen da $\int f(t)dt$ eta magnitude oso handia duen indarra deskribatzen du, denbora tarte oso labor batean eragiten duena. Idealki, denbora tartea zerorantz hurbiltzen da eta indarra infinitorantz,

baina denbora integral finitu batekin. Denboraren eremuko simulazio ingurune batean ez da posible indar infinitorik aplikatzea, ezta zero denbora tartea definitzea ere, beraz, praktikan, *f* indar bat aplikatzen da Δ*t* denbora kopuru diskretu batean zehar. Egoera hau 4-6 irudian deskribatzen da.



4-6 irudia. *f* magnitudeko bulkada-indarra Δ*t* denbora iraupen batekin.

Beraz, estimazio prozesua *f* balioaren determinazioan datza, Δ*t* denbora tartean eragiten duena, erantzun moduan makinaren portaera erreala islatzen duen emaitza ematen duelarik.

Helburu honekin aukeratutako erantzunak kontrol puntu batzuen azelerazioak izan dira; kontrol puntu horietan azelerometroak ipini izan diren 4-1 irudiko saiakuntzan zehar. Simulaturiko azelerazioak egoera-espazio eredua erabiliz lortu dira, $\mathbf{L}_y$ bektorearen definizio egoki batekin. Kautxuzko espezimena makinarekin alderatuz oso malgua dela kontsideratu da, beraz material honi dagokion zurruntasun gehigarririk ez zaio gehitu ereduari. Hortaz, Δ*t* definitu ostean, *f*-ren balioa modu iteratioboan aldatzen joan da erantzun simulatuaren eta neurtutakoaren artean korrespondentzia egokia lortu arte.

Behin bulkada-kargaren magnitude egokia estimatuta, ereduaren egiaztatze prozesuan hurrengo pausoa karga-zelulak neurtutako indarra aurresatea da, simulazioen zehaztasun maila determinatzeko asmoz.

4.3.2.2. Karga-zelulak neurtutako indarraren simulazioa

4-7 irudiak karga-zelula piezoelektrikoaren irudia aurkezten du, zein goiko muturrean kokaturik dagoen. Zelula honek neurtutako indarra estimatu daiteke, zelula malguki elementu baten bitartez karakterizatuz egindako ereduaren bitartez. Izan ere, malgukiaren amaierako desplazamenduak kalkulaturik daudela kontuan hartuz (*1* eta *2* puntuak 4-7 irudian), karga-zelulako indarra (F_{LC}) lor daiteke, bere zurruntasuna (K_{LC}) malgukiaren luzera aldaketarekin ($x_2 - x_1$) biderkatuz.



4-7 irudia. Karga-zelularen idealizazio matematikoa.

x_1 eta x_2 aldagaiak eredu modaletik kalkula daitezke (4-7 irudi berberean erakusten dira *1* eta *2* puntuei dagozkien neurketa puntuak). **C** eta **D** matrizeak moldatu egin behar dira desplazamenduak eman ditzaten irteera moduan, ondokoari jarraituz[109]:

$$\mathbf{C} = \left[\mathbf{L}_y^T \boldsymbol{\Phi} \boldsymbol{\Omega}^{-1} \quad \mathbf{0}\right] \qquad \mathbf{D} = \mathbf{0} \tag{4.27}$$

Hortaz, 4.3.2.1. azpiatalean lortutako bulkada magnitudea sarrera moduan aplikatu da eta *2* eta *1* puntuen desplazamendu axialak ereduaren bitartez estimatu dira. Puntu hauen arteko diferentzia K_{LC}-gatik biderkatu behar da, zein fabrikatzailearen katalogotik[97]. Indar simulatuaren denboran zeharreko seinale erresultantea 4-8 irudian erakusten da, seinale honen FFTarekin batera.



4-8 irudia. Simulaturiko karga-zelulako indar seinalearen (a) Denboran zeharreko eboluzioa eta (b) FFTa.

Antzekotasun argia ikusten da neurtutako karga-zelulako indar seinalearen (4-2 irudia) eta simulaturikoaren (4-8b irudia) frekuentzien edukien artean.

Hortaz, ereduaren balioztatze prozesuak simulazioen zehaztasuna ziurtatzen du; eredua hurrengo etapan egingo den indar seinalearen zuzenketarako egokia dela adieraziz.

4.4 KARGA-ZELULAK NEURTUTAKO INDARRAREN ZUZENKETA

Ereduak 4-8a irudian aurresandako indarraren seinaleak, karga-zelulak neurtutako osagai oszilakor iragankorra estimatzen du; osagai hau 4-1 irudiko materialaren saiakuntzan zehar makinaren erresonantzien eszitazioaren ondorioa da. Beraz, zati oszilakor hau ezabatu daiteke, simulaturiko erantzuna neurtutako seinaleari kenduz gero.

Ideia hau kontuarekin aplikatu behar da bi seinaleen arteko edozein fase-aldaketa ekiditzeko. Izatez, 4-1 eta 4-8a irudietako denboraren ardatzak independenteak dira eta korrelazio zehatzak aldibereko denbora uneen determinazioa kontu handiarekin egitea eskatzen du. Helburu hau lortu da bi seinaleak irudi berdinean gainezarriz eta erantzun simulatua tontor biren denbora uneak parekatu arte trasladatuz. Prozedura hau 4-9 irudian azaltzen da.



4-9 irudia. Indarraren seinale esperimentalaren eta simulatuaren arteko konparaketa denbora korrelazio egoki baten kasuan, erantzun simulatua trasladatu ondoren.

4-9 irudiko seinale simulatua orain seinale esperimentalari kentzeko prest dago. Eragiketa honek 4-10 irudiko kurba sortzen du.



4-10 irudia. Karga-zelularen indar seinalea oszilazio simulatuak kenduta ostean.

Oszilazioak, guztiz kendu ez arren, modu nabarmenean txikitu dira. Hain zuzen ere, 4-1 irudiko jatorrizko datu esperimentalekin konparatuz, ikus daiteke tontorren anplitudeak modu argian txikitu egin direla.

Seinale berria egokiagoa da iragazkia aplikatzeko jatorrizko neurketa esperimentala baino, sarreran aipatu bezala. Beraz, 4-10 irudiko seinaleari behe-paseko iragazkia pasatu zaio, 1600 Hz-tako mozketa frekuentziaduna. Mozketa frekuentzia hau 4-8 irudian agertzen den oszilaziodun frekuentzia iragazi ahal izateko eran aukeratu da. Kurba erresultantea 4-11 irudian erakusten da.



4-11 irudia. Iragazi ostean azken indarraren seinalea.

Emaitza final honek portaera leuna erakusten du, non erantzun oszilakorra kendua izan den. Beraz, makinaren kontribuzio dinamikoa kendu izan da eta kurbak saiakuntzako materialaren portaera erreala islatzen du; honek zera esan nahi du, seinalea egokia dela ondorengo analisietarako, materialaren karakterizaziorako abiadura altuetan.

Azkenik, 4-12 irudiak karga-zelulak neurtutako indar seinalea simulatutako oszilazioak kenduta gero eta azken indar seinalea iragazita gero erakusten ditu.



4-12 irudia. Karga-zelulak neurtutako indar seinalea simulatutako oszilazioak kenduta gero vs. Indar seinale finala iragaztearen ostean

4.5 APLIKAZIOA BESTE DENTSITATE MATERIAL BATZUETARA

Aurretiaz esan bezala, ikasitako kurba materialaren dentsitatea 0.75 g/cm^3 da, 60/40 proportziorako. Metodologia hau beste dentsitate material batzuei aplikatu zaie, hain zuzen ere 0.84, 0.93 eta 1.04 g/cm^3. Hurrengo irudiek hasierako indarra versus denbora erakusten dute, oszilazioak kenduta gero ateratzen diren indarren seinaleekin batera, dentsitate hauentzat.



4-13 irudia. 0.84 g/cm^3 dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak.



4-14 irudia. 0.93 g/cm^3 dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak.



4-15 irudia. 1.04 g/cm^3 dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak.

Ondoren, metodologia berdina aplikatu zaie materialaren beste proportzioei, hau da, 75/25 proportzioa eta 90/10 proportzioa, eta beraiei dagozkien dentsitateei.

<u>75/25 proportion</u>:



4-16 irudia. 0.77 g/cm^3 dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta HANDIAK).



4-17 irudia. 0.85 g/cm^3 dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta HANDIAK).



4-18 irudia. 0.73 g/cm^3 dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta TXIKIAK).



4-19 irudia. 0.83 g/cm³ dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta TXIKIAK).



4-20 irudia. 0.93 g/cm³ dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta TXIKIAK).



4-21 irudia. 1.07 g/cm^3 dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta TXIKIAK).

<u>90/10 proportion</u>:



4-22 irudia. 0.73 g/cm^3 dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta HANDIAK).



4-23 irudia. 0.83 g/cm³ dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta HANDIAK).



4-24 irudia. 0.93 g/cm³ dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta HANDIAK).



4-25 irudia. 1.02 g/cm³ dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta HANDIAK).



4-26 irudia. 0.82 g/cm³ dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta TXIKIAK).



4-27 irudia. 0.92 g/cm³ dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta TXIKIAK).



4-28 irudia. 0.99 g/cm³ dentsitatearen kasuan hasierako eta bukaerako indarren seinaleak (probeta TXIKIAK).

4.6 EZTABAIDA

Makina serbo-hidraulikoetan abiadura altuko materialen karakterizaziotik "ringing"aren ondorioz ematen diren ondulazioak ezabatzeko prozedura berri hau efikaza dela ikusi da. Metodoaren ezaugarri bereizgarria saiakuntza sistemaren propietate dinamikoen eredu modal baten bitartez egiten den deskribapena da; eredu honek bibrazio modu nagusiak kontsideratzen ditu makinaren portaeraren sarrera-irteeran. Hau esploratu gabeko ikerketa area da, egin berri den literaturako aurreko lanek askatasun gradu bakarreko ereduak kontsideratu izan dituztelarik; horrela, emaitza simulatuak eta esperimentalak konparatzerakoan, erroreak agertzen izan dira.

Garatutako eredua karga-zelulak neurtutako indarraren osagai iragankorra simulatzeko gai da, saiatzen ari den materiala inpultso baten eran eszitatzen denean. Osagai hau datu esperimentaletatik kentzen da bibrazioen anplitudeak asko txikitzen direlarik; horrela material kurba egokia egiten da ondoren iragazi ahal izateko.

Beraz, lan honen kontribuzio nagusia makina eredu baten garapena da, "ringing"aren ondorioz ematen diren oszilazioak minimizatzea posible egiten duena, datuak filtratu aurretik, filtro pausoa efikazagoa egiten duena jatorrizko neurketa esperimentalei zuzenean aplikatuz baino. Efikazia hau kautxuzko espezimen batean frogatu da, baina prozedura beste material batzuetara zabal liteke, zeinen zurruntasun propietateak ez diren mesprezagarriak.

5. MATERIALAREN EKUAZIO OSAGARRIA

5.1 SARRERA

Birziklatutako kautxuarekin eta LLDPE-arekin egindako hiru nahasteren probetak egin dira eta berauekin deformazio abiadura altuko konpresiozko saiakuntzak egin dira. Deformazio abiadura altuenaren datu esperimentalak zuzenduak izan dira AME-aren bitartez. Kapitulu honetan nahaste honen portaera azaltzen duen ekuazio osagarri bat aukeratzen eta garatzen da, hain zuzen ere, Yang-en eredua, 2.4 atalean aurkeztua. Ereduaren sei parametroak doitzen dira; lehendabiziko hiru hiperelastikoak minimo karratuen doiketa estrategiarekin, gainontzeko hiru biskoelastikoak doitzeko optimizazio algoritmo bat aplikatzen den bitartean. Algoritmo honi Particle Swarm Optimization (PSO) deritzo eta xehetasunez azaltzen da; bere erraztasunarengatik, sendotasunarengatik eta konbergentzia azkarrarengatik aukeratua izan da. Parametro gutxi batzuen doiketa soilik du beharrezko eta optimo globalera iristeko gai da, optimizatu nahi den funtzioa oso ez-lineala izanda ere[110]. Modu arrakastatsuan aplikatu izan da Kontrol-Ingeniaritzan edota Informatikan[111,112] eta Materialen Zientziaren[113,114] eremu batzuetan ere. Algoritmoa 90/10 nahasteari aplikatu zaio, 0.9 g/cm^3 dentsitatedun probeta handiei hain zuzen ere, 0.057, 0.57 and 5.7 s^{-1} deformazio abiadurekin. Ondoren, Yang-en eredua deformazio abiadura altuenari aplikatu zaio, hots, 57 s^{-1} deformazio abiadurari, eta balio hauek zuzenduriko balio esperimentalekin konparatu dira.

Kapitulua ondoren azaltzen den moduan antolatu da. Lehendabizi, Yang-en eredua garatu da 5.2. atalean. Gero, Particle Swarm (PSO) algoritmoa aurkeztu da 5.3. atalean. Jarraian, lortutako emaitzak erakusten dira 5.4. atalean. Azkenik, eta doiketa prozesuan aurkitutako zailtasunek parametroen ikasketa teorikoa eragin dute berauei buruz informazio gehiago eskuratzeko asmoz, 5.5. atalean. Kapitulua eztabaida labur batekin amaitzen da.

5.2 YANG-EN EREDUAREN AUKERAKETA

Lan honetan aukeraturiko eredu hiper-biskoelastikoa Yang eta bestek[68] proposaturikoa da 2.4. atalean esan bezala, 2. kapituluan. Eredua aukeratzearen arrazoia ikertzaileen komunitateak xehetasunez aztertu izan duela da[71,83,115-118]; kautxu erako materialen portaera zehaztasunez deskribatzen du deformazio abiadura eremu zabal batean. Lehendabizi hiru dimentsiotarako garatzen da eta ondoren, konpresio uniaxialeko kasuan aplikatzen da.

5.2.1 Yang-en ereduaren aurkezpena

Proposaturiko materialaren eredua osagai hiperelastiko bat osagai biskoelastiko batekin paraleloan ipiniz eratzen den material ereduen konbinaziotik dator. Zati hiperelastikoari dagokionez, hiru parametroko seriera moztutako Rivlinen eredua materialaren atal hau deskribatzeko aproposa dela ikusi da. Zati biskoelastikoari dagokionez, K-BKZ ereduaz osaturik dago, Yang-en aldaketarekin, Maxwell-en eredu orokortura eramanez. Kautxu erako material konprimaezinen deformazio handien hiru dimentsioko portaera hiper-biskoelastikoa deskribatzen du. Tentsio totala osagai bien batura da:

$$\sigma = \sigma^e + \sigma^v \tag{5.1}$$

Non σ^e tentsioak propietate hiperelastiko kuasiestatikoa adierazten duen eta σ^v tentsioa deformazio abiaduraren eta deformazioaren historiaren menpeko materialaren erantzuna den. Eredu honen adierazpen reologikoa proposa daiteke: orekako malguki bat Maxwell elementu batekin paraleloan ipinita; Maxwell elementu hau, bitarteko malguki bat eta segidan motelgailu biskoso[7] bat jartzean datza. Adierazpen hau 5-1 irudian erakusten da:



5-1 irudia. Eredu hiper-biskoelastikoaren adierazpen reologikoa

Ereduko malguki biak dira hiperelastikoak. Motelgailu biskosoak tentsioa (edo indarra, azken finean) bitarteko malgukian deformazio abiadurarekin aldatzea baimentzen du.

- Deformazio abiadura oso baxua denean, motelgailua ez denez aktibatzen, deformazioa orekako malgukiak zuzentzen du soilik;

- Deformazio abiadura oso altua demean, motelgailuak ez du denbora nahikoa deformatzeko eta "makil" baten modukoa da, eta beraz, bitarteko malgukia bere balio maximora hurbiltzen da.

Deformazio abiaduraren balio bi hauen bitartean, materiala deformazio abiaduraren menpeko da eta lege konstitutibo bisko-hiperelastiko baten bidez azaltzen da.

Cauchy-ren tentsio tentsorearen eta ezkerreko Cauchy-Green-en deformazio tentsorearen arteko erlazioa material hiperelastiko batentzat (ikusi Eranskina xehetasun gehiagorako):

$$\sigma^e = 2\left(\frac{\partial \psi}{\partial I_1} + I_1 \frac{\partial \psi}{\partial I_2}\right) b - 2\frac{\partial \psi}{\partial I_2} b^2 - pI \qquad (5.2)$$

Kontuan izanik saiakuntzak konpresiopean egiten direla (deformazio abiadura handiko konpresioko saiakuntzak), azken terminoa "$-pI$" da. Eta (2.14) ekuazioak dioenetik, Rivlin-en eredua 3 parametroren kasurako:

$$\psi = C_{10}(I_1 - 3) + C_{01}(I_2 - 3) + C_{11}(I_1 - 3)(I_2 - 3) \qquad (5.3)$$

Espezimen konprimaezin eta isotropo bati karga uniaxiala aplikatzen zaiola kontsideratzen da. Luzapen nagusiak $\lambda_1 = \lambda = 1 + \varepsilon_{11}$ dira, kargaren norabidean (ε_{11} deformazio nagusia delarik norabide berdinean) eta, ondorioz, $\lambda_2 = \lambda_3 = \lambda^{-1/2}$. Beraz, (5.2) ekuazioan:

$$\sigma_{11}^{e} = 2\frac{\partial \psi}{\partial I_1}\lambda^2 + 2\frac{\partial \psi}{\partial I_2}(I_1\lambda^2 - \lambda^4) - P \tag{5.4}$$

$$\sigma_{22}^{e} = 0 = \sigma_{33}^{e} \tag{5.5}$$

ψ inbarianteekiko deribatuz eta ordezkatuz:

$$\begin{aligned}\sigma_{11}^{e} &= 2\left[C_{10} + C_{11}(I_2 - 3)\right]\lambda^2 + 2\left[C_{01} + C_{11}(I_1 - 3)\right](I_1\lambda^2 - \lambda^4) - P = \\ &= 2\lambda^2 C_{10} + 4\lambda C_{01} + C_{11}\left[2\lambda^2(I_2 - 3) + 4\lambda(I_1 - 3)\right] - P\end{aligned} \tag{5.6}$$

P adierazpen horretatik kentzeko $\sigma_{22}^{e} = 0$ erabiltzen da.

$$P = 2\lambda^{-1}C_{10} + 2\lambda^{-1}(I_2 - 3)C_{11} + 2\left(I_1\lambda^{-1} - \lambda^{-2}\right)C_{01} + 2(I_1 - 3)\left(I_1\lambda^{-1} - \lambda^{-2}\right)C_{11} \tag{5.7}$$

Aurreko adierazpenak luzapenaren menpe idazten badira, tentsio kuasiestatikoarentzat adierazpen finala ondokoa da:

$$\sigma_{11}^{e} = 2(\lambda^2 - \lambda^{-1})C_{10} + 2(\lambda - \lambda^{-2})C_{01} + 6(\lambda^3 - \lambda^2 - \lambda + \lambda^{-1} + \lambda^{-2} - \lambda^{-3})C_{11} \tag{5.8}$$

C_{10}, C_{01} eta C_{11} saiakuntza unidimientsionaletik determinaturiko parametroak izanik. (5.8) ekuazioa doitzerako orduan saiakuntza kuasiestatikoetako luzapen eta tentsioaren datuak hartu behar dira kontuan. Hemen minimo karratuen doiketa erabili da tentsioaren errore erlatiboa minimizatzeko helburuarekin.

Propietate biskoelastikoei dagokienez, (2.41) ekuazioa kontuan hartu behar da hiru dimentsiotako kasurako. Hemen $\Omega_{\tau=-\infty}^{t}\{C(\tau)\}$ matrize funtzionalak deformazioaren historiak tentsioarengan duen eragina deskribatzen du. Lortzen zaila denez gero, zenbait hurbilketa egin dituzte Lockett-ek[86] eta Yang eta bestek[68,69]. Material hiperelastikoentzat bitarteko malguki moduan kontsideratu dute[7]:

$$\sigma^{v} = F\frac{\partial \psi}{\partial E}F^{T} \tag{5.9}$$

$\frac{\partial \psi}{\partial E} = S$ kontsidera daiteke ondoko adierazpen moduan:

$$\frac{\partial \psi}{\partial E} = \int_{-\infty}^{t} \frac{\partial u}{\partial E}(I_1, I_2, I_3, t-\tau)d\tau \tag{5.10}$$

Nukleoa den funtzioa, $u\left(I_1,I_2,I_3,t-\tau\right)$, bi zatiren biderkaketa moduan proposa daiteke; bata, deformazioaren menpeko dena, eta bestea, denboraren menpeko dena:

$$u\left(I_1,I_2,I_3,t-\tau\right)=U(I_1,I_2,I_3)\cdot m(t-\tau) \tag{5.11}$$

Hemen $m(t-\tau)$ memoria funtzioa da, erlaxazio funtzioa t denborarekin gutxituz doana; orokorrean, Prony deritzen serie esponentzialekin osaturiko seriea moduan kontsideratzen da:

$$m(t-\tau)=\sum_{i=1}^{N} m_i \cdot \exp\left(-\frac{t-\tau}{\theta_i}\right) \tag{5.12}$$

Non:

- m_i ponderazio-faktoreak izanik $\sum_{i=1}^{N} m_i = 1$ betetzen dutelarik

- θ_i erlaxazio denborak dira.

(5.10) ekuazioa (5.9) ekuazioan sartuz ondoko adierazpena lortzen da:

$$\sigma^v = F(t)\cdot \int_{-\infty}^{t} \left(\frac{\partial U}{\partial E}\left(I_1,I_2,I_3\right)\cdot m(t-\tau)\right) d\tau \cdot F^T(t) \tag{5.13}$$

Yang-en kontribuzioa eredu honetan U-ren definiziotik dator, ondoko moduan:

$$U\left(I_1,I_2,I_3\right)=\phi\left(I_1,I_2,I_3\right)\cdot \dot{E}(\lambda) \tag{5.14}$$

Non ϕ funtzioa honela definitzen den:

$$\phi(I_1,I_2)=C_2+C_3(I_2-3) \tag{5.15}$$

Deformazioaren historiaren efektua tentsioaren gainean (5.12) ekuazioan erlaxazio denbora konstante bakarra (N=1) sartuz hartu da kontuan. Suposaketa hau Yang eta bestek[68] esandakoarekin bat dator eta eredu material bat formulatzean beharrezkoak diren parametroen kopurua minimizatzearen helburua betetzen du; helburu hau, beti ere datu esperimentalekin korrelazioa modu esanguratsuan konprometitu gabe. Yang eta bestek beraien ikerketa lanean Maxwell-en eredu orokortuak deskriba dezakeen deformazio abiaduren tarteari buruzko azterketa egin zuten eta tentsioaren eta motelgailuari lotutako

deformazio abiaduraren arteko erlazio bat lortu zuten; honen arabera, motelgailua deformazio abiaduraren n.erroarekiko proportzionala litzateke. Hortaz, horrelako eredua deformazio abiaduren tarte handiago bat lortzeko erabil liteke.

Erantzun biskoelastiko erresultantea ondoko adierazpenak emana dator:

$$\sigma_{11}^{v} = \lambda^2 \int_o^t \lambda[C_2 + C_3(I_2(\tau) - 3)] \exp\left(-\frac{t-\tau}{C_4}\right) \dot{\lambda} d\tau + \\ + \frac{1}{2}\lambda^{-1} \int_o^t \lambda^{-2}[C_2 + C_3(I_2(\tau) - 3)] \exp\left(-\frac{t-\tau}{C_4}\right) \dot{\lambda} d\tau \tag{5.16}$$

Non I_2 deformazioaren bigarren inbariantea den,

$$I_2 = \frac{1}{2}\left[I_1^2 - \mathrm{tr}(B^2)\right] = \lambda^{-2} + 2\lambda \tag{5.17}$$

Eta B ezkerreko Cauchy-Green deformazio tentsorea, ondoko eran definituta dagoena:

$$B = \begin{bmatrix} \lambda^2 & 0 & 0 \\ 0 & \lambda^{-1} & 0 \\ 0 & 0 & \lambda^{-1} \end{bmatrix} \tag{5.18}$$

Zati biskoelastikoa zaila da minimo karratuen hurbilketa estandarrean inplementatzea; zailtasuna konboluzio integralaren determinazioan datza. Hemen definitzen den algoritmoa doiketa anitzeko prozedura ez linealean oinarritzen da, Doman[119]-ek ezarri bezala, eta inplementatzen erlatiboki erraza da; azterketa honetan Matlab-en egin da.

(5.16) ekuazioko hiru parametro biskoelastikoak (C_2, C_3 eta C_4) PSO hurbilketaren bitartez doitu dira. Doiketa algoritmoaren garapena hurrengo atalean deskribatzen da.

Formulazio honekin deskribatzen den portaera biskoelastikoa Maxwell-en eredu orokortuaren parekoa da; motelgailu biskosoa eta malguki elastikoa seriean konektatuta daudelarik. Deformazioaren menpeko malgukiaren modulu ez-lineala $E = C_2 + C_3(I_2 - 3)$, eta motelgailuaren biskositatea $\eta = E \cdot C_4$ dira, non C_4 ereduraren erlaxazio denbora konstantea den.

Ekuazio osagarri osoa (5.8) eta (5.16) ekuazioen batuketatik lortzen da:

$$\sigma_{11} = 2(\lambda^2 - \lambda^{-1})C_{10} + 2(\lambda - \lambda^{-2})C_{01} + 6(\lambda^3 - \lambda^2 - \lambda + \lambda^{-1} + \lambda^{-2} - \lambda^{-3})C_{11} +$$
$$+\lambda^2 \int_0^t \lambda[C_2 + C_3(I_2(\tau) - 3)]\exp\left(-\frac{t-\tau}{C_4}\right)\dot{\lambda}d\tau + \qquad (5.19)$$
$$+\frac{1}{2}\lambda^{-1}\int_0^t \lambda^{-2}[C_2 + C_3(I_2(\tau) - 3)]\exp\left(-\frac{t-\tau}{C_4}\right)\dot{\lambda}d\tau$$

5.3 DOIKETA ESTRATEGIA

C_{10}, C_{01} eta C_{11} parametroak minimo karratuen doiketaren bitartez determinate dira, aurreko atalean esan bezala. Zati biskoelastikoari dagokionez, hala ere, minimo karratuen hurbilketa estandarra inplementatzen zaila da; zailtasuna konboluzio integralaren determinazioan datza[120]. Hemen definitzen den algoritmoa doiketa anitzeko prozedura ez linealean oinarritzen da, Doman-ek[119] ezarri bezala eta inplementatzen erlatiboki erraza da; azterketa honetan Matlab-en egin da.

(5.16) ekuazioko hiru parametro biskoelastikoak (C_2, C_3 eta C_4) Particle Swarm Optimization (PSO) hurbilketaren bitartez doitu dira. Doiketa algoritmoaren garapena ondoko azpiatalean deskribatzen da, 0.9 g/cm^3 dentsitateari aplikatzen zaiolarik.

5.3.1 PSO metodoa

5.2.1.1 Algoritmoaren aurrekariak

PSO optimizazio teknika estokastikoa da multzoen inteligentzian oinarritutakoa. 1995ean garatu zuten James Kennedy and Russell Eberhart-ek, funtzio jarrai ez-linealak optimizatzeko asmoarekin. Metodoak bere jatorria metodologia nagusi bitan du: batetik, bizitza artifiziala orokorrean eta hegazti-andana eta arrain-sarda bereziki; eta beste aldetik, eboluzio-konputazioa, eta honi lotuta algoritmo genetikoak. Ez da konputazionalki garestia, ezta memoriaren beharrizanei begira, ezta denbora kontsumoaren aldetik[110].

Algoritmo hau bere erraztasunarenagtik, sendotasunarengatik eta konbergentzia azkarra izateagatik aukeratu da. Parametro gutxi batzuen doiketa soilik da beharrezkoa eta optimo globalera iristeko gai da, optimizatu nahi den funtzioa oso ez-lineala izanda ere[110]. Kontrol

Ingeniaritzan edota Informatikan[111,112] modu arrakastatsuan aplikatu izan da eta Materialen Zientziaren arlo batzuetan ere[114,121].

PSO batean helburua emandako kostu funtzio baten balio minimoa lortzean datza. Normalean, mota honetako algoritmoak bere balioa iterazioetan zehar hobetzen joatea bermatzen du. Hortaz, helburua ondoko eran defini daiteke:

$$Cost = f(\vec{p}) \tag{5.20}$$

$$\vec{p} = (p_1, p_2, \ldots, p_n) \tag{5.21}$$

$$\vec{p}_{optim} = Argmin_{\vec{p}}\, f(\vec{p}) \tag{5.22}$$

Proposaturiko optimizazio algoritmoak multzo bat osatuz bilatze-espazioan zehar mugituz doazen N partikula definitzen ditu eta k partikula bakoitzak bere posizio bektorea du, $\vec{p}_k$. Partikulen osizioen osagaiak doitu beharreko parametroak dira. Beraz partikula bakoitzak $c(\vec{p}_k)$ kostu bat du bere posizioari lotuta. Kostu funtzioaren optimizazioa partikulak parametroen-espazioan zehar mugitzen direnean soluziorik onena bilatuz lortzen da, ondorengo mugimenduaren ekuazioen bitartez:

$$\overrightarrow{v_k}(t_{n+1}) = w \cdot \overrightarrow{v_k}(t_n) + f_p \cdot r_p \cdot \left(\vec{p}_{k,opt} - \vec{p}_k(t_n)\right) + f_g \cdot r_g \cdot \left(\vec{p}_{globalopt} - \vec{p}_k(t_n)\right) \tag{5.23}$$

$$\vec{p}_k(t_{n+1}) = \vec{p}_k(t_n) + \overrightarrow{v_k}(t_n) \tag{5.24}$$

t_{n+1} eta t_n uneko eta aurreko iterazio denborak dira. Ekuazio bi hauek hainbat alditan edo iteraziotan aplikatzen dira.

Ekuazioetan sartutako parametroak 5-1 taulan definituta daude.

(5.23) ekuazioko inertzia-pisuaren koefizienteari dagokionez, txikitze ez-lineala duen inertzia-pisu bat kontsideratu da, funtzio ahur batekin Zheng eta beste[114]-k diotenarekin bat datorrelarik:

$$w = (w_{\max} - w_{\min})\frac{k^2}{k_{\max}^2} + (w_{\min} - w_{\max})\frac{2k}{k_{\max}} + w_{\max} \tag{5.25}$$

w_{max} eta w_{min} inertzia-pisu maximo eta minimoa dira, hurrenez hurren, eta k_{max} iterazio kopuru maximoa da. Inertzia-pisu handi batek bilaketa globala errazten du, inertzia-pisu txiki batek bilaketa lokala errazten duen bitartean[112].

5-1 taula. PSO algoritmoaren parametroak

Parametroa	Definizioa	Balioa edo balio-tartea
r_p	k. partikulak lortutako posizio optimora duen erakarpen-indarra	0 eta 1 balioen arteko ausazko balio uniformea. Balio hau iterazio bakoitzean kalkulatzen da
r_g	Partikula guztiek lortutako optimo globalera duten erakarpen-indarra	0 eta 1 balioen arteko ausazko balio uniformea. Balio hau iterazio bakoitzean kalkulatzen da
f_p	Azelerazio koefiziente honek garrantzi handiagoa ematen dio partikula bakoitzaren konbergentziari posizio optimorantz	Balio konstante positibo bat da
f_g	Azelerazio koefiziente honek garrantzi handiagoa ematen dio konbergentziari posizio optimo globalerantz	Balio konstante positibo bat da
w	Partikulen inertzia	Balio positibo bat da
$\vec{p}_k(t_n)$	k. partikularen posizioa t_n unean adierazten duen parametroa	Parametroen eremu eskualde posible batean hasierazten da modu estokastiko batean
$\overrightarrow{v_k}(t_n)$	k. partikularen abiadura t_n unean adierazten duen parametroa	Ausazko balio txikietan hasierazten da
$\vec{p}_{k,opt}$	k. partikularen parametro posiziorik onena	Partikulen hasierako posizioetan hasierazten da
$\vec{p}_{globalopt}$	Partikula guztien posizio parametro onena	Partikula guztien posizio onenetan hasierazten da

R^2 determinazio koefizientearen definizio klasikoa aplikatu da ereduaren doiketaren ontasuna neurtzeko datu esperimentalekiko; honetan oinarrituz, GE errore globala hurrengo erlazioaren bitartez definitzen da:

$$GE = \frac{\sum_{i=0}^{M-1}\left[\hat{\sigma}_n\left(i\Delta t, A_2, A_3, A_4\right) - \sigma_n(i\Delta t)\right]^2}{\sum_{i=0}^{M-1}\left[\overline{\sigma}_n - \sigma_n(i\Delta t)\right]^2} \tag{5.26}$$

M doiketan parte hartzen duten datu kopurua da, Δt denbora pausoa da, σ_n tentsioaren balio esperimentala da luzapen puntu bakoitzean, $\hat{\sigma}_n$ ekuazio osagarriaren bidez kalkulaturiko tentsioa da eta $\overline{\sigma}_n$ batezbesteko tentsio esperimentala da. Iragarritako balioak esperimental balioetara hurbiltzen diren heinean, GE zerorantz hurbiltzen da. Aurreko ekuazioaren hedadurak kurba anitzerako ondoko adierazpena ematen du:

$$GE_{total} = \sum GE_N \tag{5.27}$$

N doitu beharreko kurba kopurua da, hots, deformazio abiadura desberdinei dagozkien kurbak. R^2 determinazio koefizientea kontsideratu da eredu teorikoaren doiketaren ontasunaren adierazle moduan datu esperimentalekiko. Kurba desberdinen aldibereko doiketaren determinazio koefizientea lortu da GE_{total} kurben kopurutik kenduta eta ostean kurba kopuruaz zatituta[122]. Ebatzi beharreko optimizazio problema errorearen minimizazioa da; hau da, helburu-funtzioa den ($1-R^2$) minimizatzea zerorantz, hasierako parametroak aldatuz joanez:

$$Error = \left(1 - R^2\right) = \frac{GE_{total}}{N} \tag{5.28}$$

Oinarrizko optimizazio sekuentzia ondokoa da:

1. Luzapena, denbora eta materialaren konstanteak emanik, $\hat{\sigma}_n$ tenstioaren balioak ateratzen da. C_2, C_3 eta C_4 parametroen hasierako balioak literaturatik hartu dira. Batezbesteko tentsio esperimentala ere saiakuntza guztientzat deformazio-abiadura bakoitzean kalkulatzen da ($\overline{\sigma}_n$).Iterazio kopuru maximoa ezartzen da.

2. Helburua den funtzioa kalkulatzen da (5.28) ekuaziaren bidez.

3. Aurreko iterazioetako materialaren konstanteak erabiliz, eta helburua den funtzioaren uneko eta aurreko balioak konparatuz, helburu-funtzio hori minimizatuko duten koefiziente berriak iragartzen dira.

Bestela esanda, partikula bakoitzaren uneko kostu funtzioa, $c(\vec{p}_k)$, partikularen posizio onena, $\vec{p}_{k,opt}$, baino hobea bada, kostu funtzio honek $\vec{p}_{k,opt}$ ordezkatuko du eta uneko posizioak partikularen posizio onena ordezkatzen du.

Partikularen posizio onena, $\vec{p}_{k,opt}$, partikula guztien posizio onenarekin konparatzen da, $\vec{p}_{globalopt}$. Uneko $\vec{p}_{k,opt}$, $\vec{p}_{globalopt}$ baino hobea bada, orduan posizio global onena ordezkatzen du eta uneko posizioak partikulen posizio onena ordezkatzen du.

4. Errepikatu iterazio kopuru maximoa lortzen den arte.

Partikula bakoitzak bere soluziorik onena du (fitness) iterazio bakoitzean, **pbest** deitua, pertsonal onena; eta partikula guztien soluzio onena iterazio bakoitzean **gbest** deitzen da, global onena. Balio bi hauek 5-2 irudiko fluxu-diagraman erakusten dira:



5-2 irudia. PSO algoritmoaren fluxu-diagrama

5.2.1.2. Algoritmoaren abantailak

Algoritmo honen abantaila nagusienetako bat zera da, kostu funtzioarengan ia ez dagoela murrizketarik. Teknika honen emaitzak hasierako parametroen estimazioekiko sentikorra dela egia izanda ere, soluzioa etengabe hobetuz doa (beti da aurreko iterazioan baino hobea); hau ez da honela gertatzen jeitsiera-gradientearen algoritmoarekin.

All particles in PSO algoritmoan partikula guztiak populazioaren osagai mantentzen dira algoritmoa exekutatu ahala. Aurreko iterazioetan kalkulaturiko balioak berrerabiliak dira algoritmo genetikoekin baino modu zuzenago batean.

5.3.2 PSO-ren aplikazioa Yang-en ereduari (zati hiperelastikoa minimo karratuen bidez)

Proposaturiko ereduaren C_{10}, C_{01} eta C_{11} parametro hiperelastikoak datu esperimentaletara doituak izan dira minimo karratuen hurbilketaren bitartez; modu honetan errore erlatiboa tentsio nominalean minimizatu egin da. Deformazio abiadurarik geldoenari dagozkion datu esperimentalak ($0.057s^{-1}$), kuasiestatiko kontsideratu den saiakuntzarenak, erabili izan dira. Materiala guztiz konprimaezina dela kontsideratu da parametro hiperelastiko hauek lortzerakoan.

Hortaz, minimizatu beharreko errore erlatiboa (5.29) ekuazioan ematen da:

$$relative\_error = \sum_{i=1}^{N} \left(\frac{\sigma_i^{theoretical} - \sigma_i^{experimental}}{\sigma_i^{experimental}} \right)^2 \tag{5.29}$$

$\sigma_i^{theoretical}$ (5.8) ekuazioko tentsio teorikoari dagokio eta $\sigma_i^{experimental}$ esperimentalki neurtutako tentsioari dagokio.

Parametro biskoelastikoei dagokienez, kautxu-erako materialentzat literaturan[68] agertzen diren balioak hartu dira hasierako estimazio modura C_2, C_3 eta C_4 parametroentzat. Parametro hauek aurretik azaldu den PSO doiketa anitzeko algoritmo ez-linealaren bitartez doitu dira, partikulen posizio bektoreen osagaiak izanik. Proposaturiko ereduaren eta Maxwell-en eredu orokortuaren artean dagoen analogiari jarraituz, 5.2 atalean deskribatu dena, C_2, C_3 eta C_4 positiboak izatea beharrezkoa da E-ren balio positivo bat eman dezaten. Eskakizun hauek zentzu fisikoa ematen diote ereduari.

5.4 EMAITZAK

5.4.1 0.057, 0.57 eta 5.7 s^{-1} deformazio abiadurak (guztiak, altuena izan ezik)

5.3.2.1. PSO-ren aplikazioa Yang-en ereduari. Ereduaren parametroen lortzea

PSO 90/10 proportzioko nahasteari aplikatu zaio, hain zuzen ere 0.9 g/cm^3 dentsitatedun probeta handiei. Ondoren, parametroen lorpena azpiatal bitan banatzen da, hiperelastikoa batetik eta biskoelastikoa bestetik; izan ere, lehendabizikoak minimo karratuekin lortzen dira eta PSO biskoelastikoei soilik aplikatu zaie[123].

a) Parametro hiperelastikoak

90/10 proportzioko eta 0.9 g/cm^3 dentsitatedun nahaste bati dagozkion koefiziente hiperelastikoak 5-2 taulan erakusten dira, kurben doikuntzan ateratako R^2 determinazio koefizientearekin batera.

5-2 taula. Koefiziente hiperelastikoak eta determinazio koefizientea

	C_{01} (Mpa)	C_{10} (Mpa)	C_{11} (Mpa)	R^2
0.92A_0.057	-1,56	2,8	0,24	0,9946
0.93A_0.057	-1,52	2,7	0,23	0,9927

¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.5-3 irudiak 0.9 g/cm^3 dentsitaterako tentsio-luzapen kurbak erakusten ditu; materialaren erantzun elastiko ez-lineala hauteman daiteke eta proposaturiko ereduaren zati hiperelastikoaren korrespondentzia ona datu esperimentalekin. Emaitza hauek kurbek iragarritako desbiderazioak datu esperimentaletatik %1a baino txikiagoak direla erakusten dute.



5-3 irudia. Tentsio-luzapen kurba kuasiestatikoak 0.9 g/cm^3 dentsitaterako vs. eredu teorikoaren osagai hiperelastikoa

Gainontzeko dentsitateetako saiakuntzei dagokienez, ereduaren eta emaitza esperimental kuasiestatikoen arteko konparaketa jarraian erakusten da:



5-4 irudia. Tentsio-luzapen kurba kuasiestatikoak 0.7 g/cm^3 dentsitaterako vs. eredu teorikoaren osagai hiperelastikoa



5-5 irudia. Tentsio-luzapen kurba kuasiestatikoak 0.8 g/cm^3 dentsitaterako vs. eredu teorikoaren osagai hiperelastikoa



5-6 irudia. Tentsio-luzapen kurba kuasiestatikoak 1 g/cm^3 dentsitaterako vs. eredu teorikoaren osagai hiperelastikoa

b) Parametro biskoelastikoak

5-7 irudiak bilaketa-espazioa adierazten du, hots, hiru parametroen balio posibleen tartea 0.9 g/cm^3 dentsitatearen kasuan; iterazio bakoitzeko puntu desberdinak erakusten dira bertan. Puntu hauek C_2, C_3 eta C_4 parametroen balio desberdinek osatutako triadak dira 5.3.1. atalean azaldu bezala. Prozesu iteratiboaren hasieran bilaketa espazioa zabala da. Ondorengo iterazioentzat espazio hau estutzen doa, kostu funtzioaren balioa txikitu egiten da eta puntu gehienak triadaren posizio optimorantz zuzentzen dira.



5-7 irudia. Parametro biskoelastikoen balio desberdinak PSO-ren exekuzioan zehar hirukote optimoarekin bat egin arte (0.9 g/cm^3 dentsitatearen kasua)

5-8, 5-9 eta 5-10 irudiek (1-R^2) kostu funtzioa edo errorea erakusten dute algoritmoaren iterazioetan zehar C_2, C_3 eta C_4 parametroekin konparatuz (0.9 g/cm^3 dentsitatearen kasua). Ikus daitekeenez, kostu funtzioaren balioak iterazio bakoitzean txikituz doaz bilaketa espazioan, parametroek berauen baliorik onenetara iristen doazen heinean; hau da, hasiera batean sakabanatuta aurkitzen diren puntuen puntu baterantz konbergentzia ematen da, iterazioak igaro ahala. Puntu hau grafiko bakoitzean dagokion parametroaren balio optimoa izango da, 5-3 taulan ikus daitekeenez. R^2 koefizientearentzat lortutako balioak ere taula honetan erakusten dira.



5-8 irudia. (1-R^2) kostu funtzioa vs. C_2



5-9 irudia. (1-R^2) kostu funtzioa vs. C_3



5-10 irudia. ($1-R^2$) kostu funtzioa vs. C_4

5-3 taula. Parametro biskoelastikoentzat balioak eta R^2 kurba desberdinentzat (0.9 g/cm^3 dentsitatearen kasurako)

Parameter	Value
C2 [Pa]	6,5117E+06
C3 [Pa]	2,5077E+06
C4 [s]	3,2202E-03
Cost function	0,08317
R2_0,57 (a)	0,9954
R2_0,57 (b)	0,9905
R2_5,7 (a)	0,9701
R2_5,7 (b)	0,9608

Kurba teorikoen eta datu esperimentalen arteko konparaketa 5-11 irudian erakusten da; 0.57s^{-1} eta 5.7s^{-1} deformazio abiadurentzat datu esperimentalak erakusten ditu proposaturiko ereduarekin konparatuz.



5-11 irudia. Datu esperimentalen eta kurba teorikoen arteko konparaketa 0.9 g/cm^3 dentsitaterako

1 eta 0.9 bitarteko luzapen tarteek hasierako hutsuneak ixten dabiltzan saiakuntzako fasea beren baitan dutela antzeman daiteke, saiakuntza esperimentalen hasierako etapetan zehar; saiakuntzen lehen zati hau, ondorioz, ereduaren doiketa neurketa esperimentalekiko egiterakoan ez da kontuan hartzen. Ondorioz, eredua nahiko ondo doitzen da bere datu esperimental homologoekiko; iragarritako kurben desbiderazioak kurba esperimentalekiko sekziorik txarrenean %10a inguru dira.

PSO optimizazio algoritmoari dagokionez, teknika honen emaitzak parametroen hasierako hurbilketekiko sentikorrak direla egia bada ere, konbergentzia egokia du datu esperimentalekiko korrelazio ona duten azken emaitza batzuetara.

Azkenik,. Kurba teorikoen eta neurketa esperimentalen arteko konparaketa 0.7 g·cm^{-3}, 0.8 g·cm^{-3} eta 1 g·cm^{-3} dentsitateei dagokienez, grafikoki erakusten da ondorengo 5-12, 5-13 eta 5-14 irudietan:



5-12 irudia. Datu esperimentalen eta kurba teorikoen arteko konparaketa 0.7 g/cm³ dentsitaterako



5-13 irudia. Datu esperimentalen eta kurba teorikoen arteko konparaketa 0.8 g/cm³ dentsitaterako



5-14 irudia. Datu esperimentalen eta kurba teorikoen arteko konparaketa 1 g/cm^3 dentsitaterako

5.4.2 57 s^{-1} deformazio abiadura (altuena)

5.3.3.1. Yang-en ereduaren aplikazioa zuzendutako deformazio abiadura altuenetara. Parametro biskoelastikoak PSOtik lortuta

PSO algoritmoa zuzendutako deformazio abiadura altuenetan aplikatu da, 90/10 proportzioko nahasteari eta probeta handiak kontsideratuz soilik. Datu esperimentalen konparazioa Yang-en eredutik iragarritako datuekin, dentsitate desberdinen kasurako, ondorengo 5-15, 5-16, 5-17 eta 5-18 irudietan erakusten da. Ereduak iragarritako tentsio-luzapen kurbek zera erakusten dute, berau ondo egokitzen dela nahaste honen portaera bisko-hiperelastikora, deformazio abiadura altuenean ere.



5-15 irudia. Yang-en ereduaren aplikazioa deformazio abiadura altuenera 0.7 g/cm³ dentsitaterako



5-16 irudia. Yang-en ereduaren aplikazioa deformazio abiadura altuenera 0.8 g/cm³ dentsitaterako



5-17 irudia. Yang-en ereduaren aplikazioa deformazio abiadura altuenera 0.9 g/cm^3 dentsitaterako



5-18 irudia. Yang-en ereduaren aplikazioa deformazio abiadura altuenera 1 g/cm^3 dentsitaterako

5.5 EREDUAREN IKASKETA TEORIKOA: PARAMETRO BAKOITZAREN ERAGINA

Batezbesteko errore karratua (MSE), J, hemen kontsideratuko da Yang-en ereduaren estimazioa, $f(p,t)$, datu esperimental errealen ordez, σ_{11}, kontuan hartzerakoan agertzen diren erroreen karratuen batezbesteko neurketa moduan; hau da, estimatzailearen eta estimatzen denaren arteko diferentzia.

$$J = \frac{1}{2}\int \left(\sigma_{11} - f(p,t)\right)^2 dt \tag{5.30}$$

Non *p*-k ereduaren parametroak adierazten dituen.

5.3 atalean definituriko optimizazio algoritmoak J-ren deribatuak parametro guztiekiko kalkulatzen ditu, $\frac{dJ}{dp}$; ondorioz, iterazio bakoitza ondoko eran kalkulatzen da:

$$\hat{p}_{k+1} = \hat{p}_k - \alpha \frac{\partial J}{\partial p} \tag{5.31}$$

(5.30) eta (5.31) ekuazioak elkarrekin erlazionatuz:

$$\begin{aligned} \hat{p}_{k+1} &= \hat{p}_k - \alpha 2 \frac{1}{2}\int \left(\sigma_{11} - f(p,t)\right)\left(-\frac{\partial f}{\partial p}\right)_{dt} dt = \\ &= \hat{p}_k + \alpha \int \left(\sigma_{11} - f(p,t)\right)\frac{\partial f}{\partial p} dt \end{aligned} \tag{5.32}$$

Integralaren barneko lehenengo terminoak errorea adierazten du, $e = \sigma_{11} - f(p,t)$, eta bigarren terminoa, $\frac{\partial f}{\partial p}$, sentikortasun funtzioa da; kasu honetan, $f(p,t) = \sigma_{Yang}$. Integral honek bi termino hauen arteko biderkaketa eskalarra adierazten du:

$$< e, \frac{\partial f}{\partial p} >= \int e \frac{\partial f}{\partial p} dt = \|e\| \left\| \frac{\partial f}{\partial p} \right\| \cos\varphi \tag{5.33}$$

Antzeman daitekeenez, erroreak iterazio bakoitzean eragiten du, baina sentikortasun funtzioak ere bai; hau da, algoritmoak errorearen balioa txikitzeko joera du. Eta zenbat eta eragin handiagoa izan parametroek funtzioarekiko, algoritmoak orduan eta kontuan gehiago hartzen du estimazio zehatzagoa lortu arazi lezakeen informazioa.

(5.19) ekuazioa kontsideratzen bada,

$$\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial p} = \frac{\partial \sigma_{Hyper}}{\partial p} + \frac{\partial \sigma_{Visco}}{\partial p} \tag{5.34}$$

Jarraian, parametro hiperelastikoekiko deribatuak egiten dira, kontuan hartuz berauek ez direla azaltzen ereduaren zati biskoelastikoan:

$$\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{10}} = \frac{\partial \sigma_{Hyper}}{\partial C_{10}} = 2(\lambda^2 - \lambda^{-1}) \tag{5.35}$$

$$\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{01}} = \frac{\partial \sigma_{Hyper}}{\partial C_{01}} = 2(\lambda - \lambda^{-2}) \tag{5.36}$$

$$\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{11}} = \frac{\partial \sigma_{Hyper}}{\partial C_{11}} = 6(\lambda^3 - \lambda^2 - \lambda + \lambda^{-1} + \lambda^{-2} - \lambda^{-3}) \tag{5.37}$$

Zati biskoelastikoari dagokionez, bi integral dituena bere baitan; ondoko eran formulatu daiteke:

$$\sigma_{Visco} = \lambda^2 s_1 + \frac{1}{2}\lambda^{-1} s_2 \tag{5.38}$$

Non:

$$s_1 = \int_0^t \lambda[C_2 + C_3(I_2 - 3)]e^{-\frac{t-\tau}{C_4}} \dot{\lambda} d\tau \tag{5.39}$$

$$s_2 = \int_0^t \lambda^{-2}[C_2 + C_3(I_2 - 3)]e^{-\frac{t-\tau}{C_4}} \dot{\lambda} d\tau \tag{5.40}$$

Kontuan izanik Laplace-ren Transformatua eta s_1 eta s_2 gaien denborarekiko deribatuak eginez,

$$\dot{s}_1 = -\frac{1}{c_4} s_1 + g_1 \tag{5.41}$$

$$\dot{s}_2 = -\frac{1}{c_4} s_2 + g_2 \tag{5.42}$$

Non:

$$g_1 = \lambda[C_2 + C_3(I_2 - 3)]\dot{\lambda} \tag{5.43}$$

$$g_2 = \lambda^{-2}[C_2 + C_3(I_2 - 3)]\dot{\lambda} \tag{5.44}$$

Parametro biskoelastikoekiko deribatuak ondoren egiten dira, kontuan izanik ez direla ereduaren zati hiperelastikoan azaltzen:

$$\frac{\partial \sigma_{Visco}}{\partial p} = \lambda^2 \frac{\partial s_1}{\partial p} + \frac{1}{2}\lambda^{-1}\frac{\partial s_2}{\partial p} \tag{5.45}$$

$$\frac{d}{dt}\left(\frac{\partial s_1}{\partial p}\right) = -\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_1}{\partial p} + \frac{\partial g_1}{\partial p} \tag{5.46}$$

$$\frac{d}{dt}\left(\frac{\partial s_2}{\partial p}\right) = -\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_2}{\partial p} + \frac{\partial g_2}{\partial p} \tag{5.47}$$

C_2, C_3 eta C_4 parametroetarako partikularizatuz:

$$\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_2} = \frac{\partial \sigma_{Visco}}{\partial C_2} = \lambda^2 \frac{\partial s_1}{\partial C_2} + \frac{1}{2}\lambda^{-1}\frac{\partial s_2}{\partial C_2} \tag{5.48}$$

$$\frac{d}{dt}\left(\frac{\partial s_1}{\partial C_2}\right) = -\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_1}{\partial C_2} + \frac{\partial g_1}{\partial C_2} \tag{5.49}$$

$$\frac{d}{dt}\left(\frac{\partial s_2}{\partial C_2}\right) = -\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_2}{\partial C_2} + \frac{\partial g_2}{\partial C_2} \tag{5.50}$$

Non $\frac{\partial s_1}{\partial C_2}$ eta $\frac{\partial s_2}{\partial C_2}$ (5.49) eta (5.50) ekuazioetatik lortzen diren, numerikoki ebatziz:

$$\frac{\partial s_1(k)}{\partial C_2} = \frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_2} + \Delta t\left(-\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_2} + \frac{\partial g_1}{\partial C_2}\right) = \frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_2}\left(1 - \frac{\Delta t}{c_4}\right) + \Delta t(\lambda\dot{\lambda}) \tag{5.51}$$

$$\frac{\partial s_2(k)}{\partial C_2} = \frac{\partial s_2(k-1)}{\partial C_2} + \Delta t\left(-\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_2} + \frac{\partial g_2}{\partial C_2}\right) = \frac{\partial s_2(k-1)}{\partial C_2}\left(1 - \frac{\Delta t}{c_4}\right) + \Delta t(\lambda^{-2}\dot{\lambda}) \tag{5.52}$$

Prozedura berbera jarraituz gainontzeko parametroekin:

$$\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_3} = \frac{\partial \sigma_{Visco}}{\partial C_3} = \lambda^2 \frac{\partial s_1}{\partial C_3} + \frac{1}{2}\lambda^{-1}\frac{\partial s_2}{\partial C_3} \tag{5.53}$$

$$\frac{d}{dt}\left(\frac{\partial s_1}{\partial C_3}\right) = -\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_1}{\partial C_3} + \frac{\partial g_1}{\partial C_3} \tag{5.54}$$

$$\frac{d}{dt}\left(\frac{\partial s_2}{\partial C_3}\right) = -\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_2}{\partial C_3} + \frac{\partial g_2}{\partial C_3} \tag{5.55}$$

$$\frac{\partial s_1(k)}{\partial C_3}=\frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_3}+\Delta t\left(-\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_3}+\frac{\partial g_1}{\partial C_3}\right)=\frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_3}\left(1-\frac{\Delta t}{c_4}\right)+ \tag{5.56}$$
$$+\Delta t(\lambda\dot{\lambda})(I_2-3)$$

$$\frac{\partial s_2(k)}{\partial C_3}=\frac{\partial s_2(k-1)}{\partial C_3}+\Delta t\left(-\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_2(k-1)}{\partial C_3}+\frac{\partial g_2}{\partial C_3}\right)=\frac{\partial s_2(k-1)}{\partial C_3}\left(1-\frac{\Delta t}{c_4}\right)+ \tag{5.57}$$
$$+\Delta t(\lambda^{-2}\dot{\lambda})(I_2-3)$$

$$\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_4}=\frac{\partial \sigma_{Visco}}{\partial C_4}=\lambda^2\frac{\partial s_1}{\partial C_4}+\frac{1}{2}\lambda^{-1}\frac{\partial s_2}{\partial C_4} \tag{5.58}$$

$$\frac{d}{dt}\left(\frac{\partial s_1}{\partial C_4}\right)=-\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_1}{\partial C_4}+\frac{\partial g_1}{\partial C_4} \tag{5.59}$$

$$\frac{d}{dt}\left(\frac{\partial s_2}{\partial C_4}\right)=-\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_2}{\partial C_4}+\frac{\partial g_2}{\partial C_4} \tag{5.60}$$

$$\frac{\partial s_1(k)}{\partial C_4}=\frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_4}+\Delta t\left(-\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_4}+\frac{\partial g_1}{\partial C_4}\right)=\frac{\partial s_1(k-1)}{\partial C_4}\left(1-\frac{\Delta t}{c_4}\right)+ \tag{5.61}$$
$$+\frac{1}{C_4^{\,2}}\int_o^t\lambda\left[C_2+C_3(I_2-3)\right]e^{-\frac{t-\tau}{C_4}}\dot{\lambda}d\tau$$

$$\frac{\partial s_2(k)}{\partial C_4}=\frac{\partial s_2(k-1)}{\partial C_4}+\Delta t\left(-\frac{1}{c_4}\frac{\partial s_2(k-1)}{\partial C_4}+\frac{\partial g_2}{\partial C_4}\right)=\frac{\partial s_2(k-1)}{\partial C_4}\left(1-\frac{\Delta t}{c_4}\right)+ \tag{5.62}$$
$$+\frac{1}{C_4^{\,2}}\int_o^t\lambda^{-2}\left[C_2+C_3(I_2-3)\right]e^{-\frac{t-\tau}{C_4}}\dot{\lambda}d\tau$$

Ekuazio hauek Matlab-en sartu dira eta numerikoki ebatzi dira. Jarraian, denbora vs $\frac{\partial \sigma_{Visco}}{\partial p}$ erlazioak irudikatu dira sei parametroentzat.



5-19 irudia. Saiakuntza desberdinen sentikortasuna C10 parametro hiperelastikoarekiko



5-20 irudia. Saiakuntza desberdinen sentikortasuna C01 parametro hiperelastikoarekiko



5-21 irudia. Saiakuntza desberdinen sentikortasuna C11 parametro hiperelastikoarekiko



5-22 irudia. Saiakuntza desberdinen sentikortasuna C2 parametro hiperelastikoarekiko



5-23 irudia. Saiakuntza desberdinen sentikortasuna C3 parametro hiperelastikoarekiko



5-24 irudia. Saiakuntza desberdinen sentikortasuna C4 parametro hiperelastikoarekiko

Cauchy-ren tentsioaren sentikortasuna hiru parametro hiperelastikoekiko 5-19, 5-20 eta 5-21 irudietan ikus daiteke. Deformazio abiadura desberdinei dagozkien saiakuntza

esperimentaletako datuak erabili izan dira. $\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{10}}$ sentikortasunaren balio maximoa -3 balioari dagokio (adimentsionala) 8 s-tara gutxi gora-behera, kontuan izanik deformazio abiadura txikienari dagokikon kurbaren datuak, hots, hain zuzen ere parámetro hiperelastikoak doitzeko erabili izan diren datuak. $\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{01}}$ versus denbora aztertzen bada, balio maximo hori -5.5 baliorarte igotzen da 8 s-tara, eta hirugarren parametro hiperelastikoaren kasuan, $\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{11}}$, balio maximo hau -9 baliorarte igotzen da 8 s-tara. Honek adierazten du hiru parametro hiperelastikoen eragina antzekoa dela beraien artean, C_{11} parametroaren eragina gainontzeko biena baino pixkat altuagoa izanik; hala ere, eraginaren magnitude ordena berdina dute.

5-22, 5-23 eta 5-24 irudiak hartzen dira kontuan ondoren, parámetro bsikoelastikoen eragina aztertzeko. $\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{2}}$ eta $\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{3}}$ parametro hiperelastikoen sentikortasunarekiko magnitude ordena bi txikiagoak diren artean $\frac{\partial \sigma_{Yang}}{\partial C_{4}}$ parametro hiperelastikoen sentikortasunarekiko zazpi magnitude ordena handiagoa da. Azterketa honek zera erakusten du, C10, C01, C11, C2 eta C3 parametroen eragin txikia C4 parametroarekin alderatuz, eredu materialarekiko.

5.6 EZTABAIDA

Yang-en eredua aukeratu izan da materialaren portaera azaltzeko. Ereduaren parametroak 90/10 proportziodun eta 0.9 g/cm^3 dentsitatedun nahastearentzat doitu dira, probeta handiak kontsideratuz. Lehenengo hiru parametro hiperelastikoak minimo karratuen doiketa teknikaren bidez doitu dira. Emaitzek erakusten dutenez, iragarritako kurben eta datu esperimentalen arteko desberdintasunak %1a baino txikiagoak dira. Parametro biskoelastikoen determinazioa PSO algoritmoan oinarritutako doiketa ez-lineal anitzaren bidez egin da, minimo karratuekin neketsua zelako inplementatzea eta ez du beti soluzio optimora jotzen. Kasu honetan, iragarritako kurben desbiderazioak datu esperimentaletatik sekziorik txarrenean %10a inguru dira.

Algoritmoak funtzio ez-lineal honen sendotasuna eta minimo globalera iristeko gaitasuna erakusten du, hurbilketa inteligente batean oinarrituta dagoelako optimizazio problemaren bertsio askorekin, partikulak deituak. Hurbilketa honek optimizazio problemaren minimo lokaletatik urruntzea baimentzen du. Are gehiago, algoritmoak ez dio optimizazio funtzioari murrizketa matematiko garrantzitsurik inposatzen. Optimizazio metodo ona dela erakutsi du, erraza, moldaerraza eta parametro gutxi batzuen bitartez soluzio optimora azeleratzen duena.

Neurtutako R_2 balioa 0.99 izan da; honek proposaturiko ereduaneurketa esperimentalekin modu egokian bat datorrela adierazten duelarik. Eredu osagarriak materialaren portaera ondo iragartzen du $0.057s^{-1}$ eta $5.7s^{-1}$ bitarteko deformazio abiadura eremuan eta %45erarteko deformazioentzat. Deformazio abiadura altuagoetarako, eragin ez-linealak nabariagoak dira, eta ondorioz, eredu honen termino kopuru mugatuarekin zailagoa egiten da portaera deskribatzea. PSO algoritmoak optimizazio metodo efizientea dela erakutsi du lan honetan kontuan hartu den arean.

Parametroen ikasketa teorikoa egitea erabaki da ereduaren parametroen eragina honeto ulertzen saiatzeko, PSOren emaitzak hasierako parametroen hurbilketekiko sentikorrak direla kontuan hartuz. Ikasketak argia isuri du C_4 parametro biskoelastikoa aukeratzerakoan kontua eduki beharraren gainean; izan ere, ereduaren gaineko bere eragina gainontzeko parametroena baino zazpi magnitude ordena altuagoa da.

6. MATERIALAREN AZPIRRUTINA ERATZEKO METODOLOGIA

6.1 SARRERA

Kapitulu honetan, Ansys elementu finituen softwarean –LS Dyna dauka softwareak analisi esplizituak egiteko– Yang-en eredua inplementatzeko metodologia aurkeztuko da. Gogorarazi beharra dago materialaren aplikazio potentziala dena, errepideetako hesien estaldura gisa erabiltzea, eta, horregatik, talkak simulatzea da xedea. Lehenik, deformazio handiko eta portaera ez-linealeko material batean epe labur batez iraungo duten konpresio saiakuntzen simulazioak burutu nahi dira; hori da, hain zuzen ere, analisi esplizitua egitearen arrazoia.

Nahiz eta kautxu birziklatuz eta LLDPEz egindako nahasketa ia konprimaezina den, kontuan hartu behar da konprimagarritasunaren menpeko ekuazio konstitutiboa, FE kodean inplementatu ahal izateko. 6.2 atalean, Yang-en eredutik abiatuta Cauchy-ren tentsioaren adierazpena kalkulatu da. Bada, adierazpen horretan oinarriturik, aintzat hartzekoa da konprimagarritasunaren alderdia. Horrez gain, ereduaren zati biskoelastikorako beste metodologia bat erabili da, Midpoint Metodoa hain zuzen ere, 6.2 atalean azaltzen den bezala. Hori dela eta, parametro berriak berriz ere kalkulatzeko asmoz, PSO algoritmoa aplikatu da ekuazioan, metodologia horri jarraituz.

6.2 PSO BIDEZ PARAMETRO BERRIAK LORTZEA

Kautxuaren tankerako materialak ia bolumen konstantean deformatzen dira, eta konprimaezintzat jotzen dira. Horregatik da I_3 (1.17) ekuazioan unitatearen parekoa. Berez, kautxuak konprimagarritasun finitua du, eta, txikia izan arren, ez da hutsala egoera guztietan. Materialaren eredua FE kodean inplementatzeko xedez, kapitulu honetan deformazio gradientea bi zatitan banatu da: zati isokorikoa (zati distortsionala) eta zati bolumetrikoa (zati dilatazionala):

$$F = \left(J^{1/3} I\right)\overline{F} = J^{1/3}\overline{F} \tag{6.1}$$

Eta horrenbestez:

$$C = \left(J^{2/3} I\right)\overline{C} = J^{2/3}\overline{C} \tag{6.2}$$

$$\overline{I}_1 = J^{-2/3} I_1 \tag{6.3}$$

$$\overline{I}_2 = J^{-4/3} I_2 \tag{6.4}$$

Non:

$$\det \overline{F} = \overline{\lambda}_1 \overline{\lambda}_2 \overline{\lambda}_3 = 1 \tag{6.5}$$

$$\det \overline{C} = 1 \tag{6.6}$$

Non $\overline{\lambda}_a = J^{(-1/3)}\lambda_a, a = 1, 2, 3$. Kontuan hartuta $\frac{\partial I_3}{\partial C} = I_3 C^{-1}$ eta $I_3 = \det b = J^2$:

$$\frac{\partial J^2}{\partial C} = J^2 C^{-1} \tag{6.7}$$

Eta katearen arauari jarraituz:

$$\frac{\partial J}{\partial C} = \frac{J}{2} C^{-1} \tag{6.8}$$

$$\frac{\partial J^{-2/3}}{\partial C} = -\frac{1}{3} J^{-2/3} C^{-1} \tag{6.9}$$

Deformazio energia ere bi zatitan bana daiteke, energia askea erreproduzitzen duen alderdia gehituta, soilik aurreko energia askearekiko bolumen aldaketarekin lotuta dagoena, eta sareko deformazioari dagokion alderdia:

$$\psi(C)=\psi_{vol}(J)+\psi_{isoc}(\overline{C}) \tag{6.10}$$

Literaturan, hainbat deformazio energia daude zehaztuta. Alde bolumetrikoa konprimagarritasun koefizientearen (K) menpe dago. Halaber, kontuan hartzekoa da Petiteau-ren[40] irizpidea, Simo-k[79] proposaturikoa (sinpleenetariko bat) hautatzen duena. Gogoratu beharra dago material ia konprimaezina deskribatzea dela helburua; ondorioz, K balio altuarekin aukeratu da parametro hiperelastikoekin alderatuz gero.

$$\psi_{vol}(J)=U(J)=\frac{K}{2}(J-1)^2\,LnJ \tag{6.11}$$

Ondorengo adierazpena tentsioaren alde bolumetrikoa kalkulatzeko erabili da, B Eranskineko (1.49) ekuazioan erakusten den moduan:

$$\sigma_{hyper\_vol}=\frac{\partial\psi_{vol}}{\partial J}I=\left(K(J-1)LnJ+\frac{K}{2}(J-1)^2\frac{1}{J}\right)I \tag{6.12}$$

Deformazio energiaren zati isokoroari dagokionez, 2. kapituluan jasotako deformazio energietako batekin egin daiteke hurbilketa: $\psi_{isoc}(\overline{C})=\overline{\psi}$. Hortaz, B Eranskineko (1.49) ekuaziotik abiatuta lor daiteke zati hori:

$$\sigma_{hyper\_isoc}=2J^{-1}dev\left[\left(\frac{\partial\psi_{isoc}}{\partial\overline{I}_1}+\overline{I}_1\frac{\partial\psi_{isoc}}{\partial\overline{I}_2}\right)\overline{b}-\frac{\partial\psi_{isoc}}{\partial\overline{I}_2}\overline{b}^2\right] \tag{6.13}$$

(5.3) ekuazioa kontuan hartuz: $\psi_{isoc}=C_{10}(\overline{I}_1-3)+C_{01}(\overline{I}_2-3)+C_{11}(\overline{I}_1-3)(\overline{I}_2-3)$.

(6.13) ekuaziotik abiatuta:

$$\sigma_{hyper\_isoc}=2J^{-1}dev\left[\left[C_{10}+C_{11}(\overline{I}_2-3)+\overline{I}_1\left(C_{01}+C_{11}(\overline{I}_1-3)\right)\right]\overline{b}-\left(C_{01}+C_{11}(\overline{I}_1-3)\right)\overline{b}^2\right] \tag{6.14}$$

Kontuan hartuta $\det(F)=\lambda_1\lambda_2\lambda_3=J$ eta konpresio unixialeko kasua ($\lambda_2=\lambda_3$) dela, honela formula daiteke F:

$$F=\begin{pmatrix}\lambda & 0 & 0\\ 0 & \left(\frac{J}{\lambda}\right)^{1/2} & 0\\ 0 & 0 & \left(\frac{J}{\lambda}\right)^{1/2}\end{pmatrix} \tag{6.15}$$

(6.1) ekuazioa aintzat hartuta, adierazpen hau lortzen da b-rentzat:

